

# Herrialde-txostena: Italia

basque  
trade &  
investment

*2020ko abendua*

+ Italiako bulegoa

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
BASQUE GOVERNMENT



## EDUKIEN AURKIBIDEA

|                                                         |           |
|---------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. DATU OROKORRAK .....</b>                          | <b>4</b>  |
| <b>1. BEGIRADA.....</b>                                 | <b>5</b>  |
| <b>2. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA .....</b>             | <b>7</b>  |
| <b>3. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA .....</b>             | <b>8</b>  |
| 3.1. Abagune ekonomikoa.....                            | 8         |
| 3.2. Balantza komertziala .....                         | 9         |
| 3.3. Atzerriko inbertsioa.....                          | 10        |
| 3.4. Enplegua.....                                      | 11        |
| 3.5. Perspektiba ekonomikoak.....                       | 11        |
| <b>4. KANPO-MERKATARITZA .....</b>                      | <b>13</b> |
| <b>5. ALDEBIKO HARREMANAK.....</b>                      | <b>15</b> |
| 5.1. Euskadiren eta Italiaren arteko merkataritza ..... | 15        |
| 5.2. Euskadiren posizionamendua .....                   | 19        |
| 5.3. Aldebiko inbertsioak.....                          | 22        |
| <b>6. SEKTORE NAGUSIAK.....</b>                         | <b>23</b> |
| 6.1. Ekarpina BPGari .....                              | 23        |
| 6.2. Negozio-aukerak.....                               | 25        |
| <b>7. NAZIOARTEKO HARREMANAK.....</b>                   | <b>28</b> |
| 7.1. Nazioarteko kidetasunak.....                       | 28        |
| 7.2. Merkataritza-akordioak.....                        | 29        |
| <b>8. ASKOTARIKO ARRISKUAK.....</b>                     | <b>30</b> |
| <b>9. ONDORIOA .....</b>                                | <b>32</b> |
| <b>10. ERREFERENTZIAK .....</b>                         | <b>33</b> |



## TAULEN AURKIBIDEA

|                                                                                                             |    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. taula: Italiako ekonomiaren hazkunde-adierazleen estimazioak, 2017-2021 .....                            | 9  |
| 2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2015-2019).....                                                | 9  |
| 3. taula: Italiaranzko atzerriko zuzeneko inbertsioa (2016-2019) .....                                      | 10 |
| 4. taula: Lan-tasa eta langabezia-tasa (2019) .....                                                         | 11 |
| 5. taula: Italiak gehien esportatu eta inportatutako produktuak (2019) .....                                | 13 |
| 6. taula: Italiak inportatutako produktu garrantzitsuenak kategoria ekonomiko handien arabera (2019) .....  | 14 |
| 7. taula: Italiaren inportazioak Europako potentzia ekonomiko garrantzitsuenetatik (2019) .....             | 14 |
| 8. taula: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza (2014-2019), milaka euro.....                  | 15 |
| 9. taula: EAEk Italiara esportatu eta inportatutako produktu nagusiak (2019) .....                          | 17 |
| 10. taula: Euskaditik Italiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan sektoreka (%) .....           | 18 |
| 11. taula: Espainiatik eta Euskaditik Italiarako esportazioen rankinga produktuka (2015-2019 guztira) ..... | 19 |
| 12. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaera hazkundearen arabera .....                 | 20 |
| 13. taula: Sektore garrantzitsuenak / BPGa (2019) .....                                                     | 23 |
| 14. taula: Sektore ekonomiko eta industrialen ekarpena BPGari .....                                         | 23 |
| 15. taula: Italiako merkatu-bolumenak (2018) .....                                                          | 24 |
| 16. taula: Italiarentzat potentzial inportatzailea duten sektore garrantzitsuenak .....                     | 27 |
| 17. taula: EBren eta hirugarren herrialde edo eskualdeen arteko akordio komertzial garrantzitsuenak.....    | 29 |
| 18. taula: Italiako ekonomiaren indar-guneak eta ahuluneak .....                                            | 30 |

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

|                                                                                                             |    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. grafikoa: Italiaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (2018-2021) .....                        | 12 |
| 2. grafikoa: Italiaren bezero eta hornitzaile garrantzitsuenak (2019) .....                                 | 13 |
| 3. grafikoa: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza (2000-2019), milaka euro.....               | 16 |
| 4. grafikoa: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza hiruhilekoka (2019-2020), milaka euro ..... | 16 |
| 5. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiatik Italiarako esportazioetan (%) (2015-2020) .....                   | 18 |



# ➔ 1. DATU OROKORRAK



## GOBERNUA

**Estatu-burua:** Sergio Mattarella  
**Lehen ministroa:** Giuseppe Conte  
**Gobernu mota:** Errepublikar parlamentarioa



## BIZTANLERIA

**Guztira:** 60.431.283 biztanle  
**Hazkunde naturala:** % -0,2  
**Hirietako biztanleria:** % 70,4  
**Hizkuntza ofiziala:** italiera  
**Negoioetarako hizkuntza:** ingelesa gero eta ohikoagoa da  
**Hiriburua:** Erroma  
**Hiri metropolitarrak garrantzitsuenak (biztanleria 2019/12/31n):**  
 Erroma (4.342.212), Milan (3.250.315), Napoli (3.084.890), Torino (2.259.523), Palermo (1.252.588).



## EKONOMIA

**BPGa (2019, mila milioi euro):** 1.771  
**Manufakturako BPGa, balio erantsia (BE) (2019, mila milioi euro):** 266.592  
**Per capita BPGa (2019, euro):** 29.336  
**BPGaren hazkundera (2019):** % 0,01  
**Inflazio-tasa (2019):** 0,6%  
**Langabezia-tasa (2019):** % 10,0  
**Gazteen langabezia-tasa (2019):** % 29,3  
**Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2019, milioi euro):** 565.004  
**Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2019, milioi euro):** 510.087



## BESTE BATZUK

**GGI (UNDP, 2018)<sup>1</sup>:** 27/188  
**I+G-n eginiko gastua BPGarekiko (2019):** % 1,3  
**Internet erabiltzaileak (biztanleriaren %-a, 2019):** % 74,4

<sup>1</sup> Giza Garapenaren Indizea (GGI); Nazio Batuen Garapenerako Programa (UNDP)



# 1. BEGIRADA

Italia, herrialde ezin ederragoa izateaz gain, munduko ekonomia garrantzitsuenetako bat da. **1,78 bilioi eurotik gorako BPGarekin** eta 60 milioi biztanle ingururekin, **munduko zortzigarren ekonomia da**, eta Euroguneko hirugarrena.

Italian (Europar Batasunaren bazkide fundatzaileetako bat) operatzeak sarbidea ematen du Europako Espazio Ekonomikoko (EEE) **30etik gora merkatu nazionaletara** eta **balizko 500 milioi kontsumitzaile baino gehiagorengana**. Gainera, itsaso zein aireko garraiorako eta logistikarako dituen guneei esker, eta jatorri zein jomugako itsaso eta aireko ibilbide ugariak direla medio, nazioarteko merkatuetara zabalik dago. Mediterraneoaren erdi-erdian dago, 40 portu eta aireportu handi ditu, eta Ekialde Ertainerako nahiz Afrika iparralderako sarbide naturala da.

Italia da **100 bilioi dolarretik gorako manufakturako superabita duten munduko 5 herrialdeetako bat**, eta gainera, EBko bigarrena da eta munduko bosgarrena manufaktura sektoreko balio erantsiari dagokionez.

Azken hamarkadan, Italiako **esportazioek % 20ko hazkundera** izan dute, eta 2017an % 5,45 hazi ziren, Alemaniak eta Frantziak (% 2,63 eta % 1,85eko hazkundeak hurrenez hurren) baino emaitza hobeak lortu zituelarik. Munduko Bankuak emandako datuen arabera, hauek dira **esportazio-kuota handiena duten ondasunak: makineria mekanikoa, ibilgailuak eta produktu farmazeutikoak**. 2009tik 2017ra Italiak bikoiztu egin ditu produktu farmazeutikoen esportazioak, Europako lehen ekoizle bihurtuz.

Maiz gertatzen diren krisi politiko eta ekonomikoak eta merkatu gorakorretako eragile berriak gorabehera, Italiak, beste herrialde askok ez bezala, lortu du bere markaren posizionamendua mantentzea: **Made in Italy** markak herrialdeko produktu eta zerbitzu guztiak ordezkatzeko ditu, eta bikaintasunaren, orijinaltasunaren eta estiloaren sinonimo da. Baina *Made in Italy* ez da erabiltzen soilik moda eta diseinu sektoreetan; sektore industrialak azken urteetan jasandako eraldaketa sakonari esker, marka horren babesean aterpetzen dira orobat makineria, sektore farmazeutikoa eta *high-tech* sektorea. *Brand Finance* bulegoko analisten arabera, Ferrari izan da azken 6 urteotako marka italiar garrantzitsuenak. Gucci bigarren postuan kokatu da 2020ko sailkapenean, Enel eta Prada marken gainetik, eta Luxotica taldeko Ray-Ban markak lehen hamarren artean sartzea lortu du.

Era berean, Italia **multinazional** handien sorterrria da: energia sektoreko **ENI** edo **ENEL**, automozio sektoreko **Fiat** **Chrysler**, industria aeroespazialeko, defentsako eta segurtasun industriako **Leonardo**, eta *premium* betaurrekoak eta kirol oinetakoak fabrikatzen dituen **Luxottica**. Bestalde, atzerriko multinazional handi batzuk ere badaude Italian, nagusiki *high-tech* sektorekoak. Enpresa horiek langile guztien % 11 enplegatzen dituzte, negozio-bolumen nazionalaren % 20 inguru ekoizten dute, eta esportazio nazional guztien % 26 ordezkatzeko dute.

Italiaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren (EAE) arteko harremanei dagokienez, aipatzekoa da **Invest in Italy** eta **Invest in Basque Country** **estrategiak bat datozela bost sektore garrantzitsutan**<sup>2</sup>: automozioa, eko-industriak, industria elektronikoa eta IKTak, bio-zientziak eta makineria aurreratua.

Eusko Jaurlaritzaren «2017-2020ko Enpresen Nazioartekotzeko Planak» (SPRI, 2018) dio Italia **1. lehentasun mailako herrialdea** dela, hainbat eskakizun betetzen dituelako: tamaina handiko merkatua, irekiera-maila handikoa eta presentzia duena lehentasunezko sektore eta enpresen etorkizuneko helburuetan. Adimen Lehiakorreko Unitatearen txosten batek, alegia, 2018ko iraileko «*BasqueTrade-ren laguntza jaso dezaketen herrialdeen azterlanak*» dio herrialde

<sup>2</sup> Euren lurraldeetara atzerriko inbertsioak erakartzeko estatu mailako tresnak.



erakargarria dela, euskal enpresen sarpin komertziala handia delako eta inbertsioen nahiz *Global Lehian*<sup>3</sup> ekintzen jatorri izan litekeelako; hala, aztertutako 48 herrialdeen artean **11. postuan dago, eta Europako 4. herrialdea da.**

Halaber, Italiako zenbait eskualdek eta EAEk antzekotasun handiak dituzte. «*Vanguard*<sup>4</sup>» ekimenaren arabera, Euskadi **bateragarria da, maila industrialean, Lombardia, Piemonte eta y Emilia-Romaña** eskualdeekin (Vanguard Initiative, 2020), eta «*Euskadiko Lehiakortasunaren Txostenka*<sup>5</sup>» dio Emilia-Romaña dela EAEn baldintza estruktural antzekoenak dituen Italiako eskualdea (Orkestra, 2018).

Bestalde, eta BasqueTrade-k eskura dituen datuen arabera, **euskal enpresek 50 ezarpen dituzte** Italian; hala, begi bistakoa da Italiako merkatua erakargarria dela euskal enpresarentzat. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak bulego komertzial bat ireki zuen Milanen 2018ko udan. Bere bi urteko ibilbidean, bulego horrek hainbat jarduera garatu ditu merkatu italiarrean kokatu nahi duten euskal enpresei laguntzeko, besteak beste, hauek: nazioartekotze-prozesuan laguntzeko proiektuak, agenda komertzialak enpresa multinazional garrantzitsuekin nahiz tokiko erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzaren programen berri emateko ekitaldiak.

Azkenik, txosten honetako «*Testuinguru makroekonomikoa*» kapituluaren aipatzen den bezala, Italiaren perspektiba ekonomikoak guztiz aldatu dira Covid-19ak eragindako krisia hasi zenetik. Hala, Nazioarteko Diru Funtsek emandako azken datuen arabera, kalkulatu da 2020ko ekitaldia ixtean BPGak % 10,6ko beherakada erregistratuko duela, eta 2021erako aurreikuspenek diote hazkundera % 5,2koa izango dela.



Iturria: [viajejet.com](http://viajejet.com)

<sup>3</sup> EAEn kokatutako ETEei (bakarka nahiz lankidetzan) nazioartekotzen laguntzeko eta, horrela, euren lehiakortasuna hobetzeko programa. Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen eta Azpiegitura Sailak antolatua.

<sup>4</sup> Europako 30 eskualdek osatutako taldea, zeinaren helburua baita euren espezializazio adimenduneko estrategiak baliatzea hazkundera sustatzeko, Europako lehentasunezko eremuetan enpresa-berrikuntza bultzatzu eta industria berrituz.

<sup>5</sup> Orkestra-Lehiakortasunaren Euskal Institutuak egina.



## 2. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

2018ko martxoaren 4ko hauteskunde orokorrek guztiz aldatu zuten Italiako panorama politikoa (Sala, 2018). Italiak atzean utzi zuen bipartidismoa (*Il Popolo della Libertà* / *Forza Italia* alderdiak lideratutako eskuin zentroko koalizioarekin eta *Partito Democratico* alderdiak lideratutako ezker zentroko koalizioarekin), azken legealdietan nagusi izan zena, eta fase politiko berri batean sartu zen, non sistemaren aurkako alderdiek eta alderdi populistek gobernuan sartzea lortu baitzuten *Movimento 5 Stelle* (M5S) eta *Lega Nord* alderdien arteko aliantzari esker, eurak izan zirelarik gobernu osatu zutenak Giuseppe Conte lehen ministroarekin eta bi presidenteorderekin: Luigi di Maio (M5S alderdiko liderra eta Ekonomi Garapen, Industria eta Lan arloko ministroa) eta Matteo Salvini (*Lega Nord* alderdiko liderra eta Barne ministroa).

2019ko abuztuaren 9an, *Lega* alderdiko liderrak jakinarazi zuen zentsura-mozio bat aurkeztuko zuela Conte lehen ministroaren aurka, hauteskunde aurreratuak eskatzeko; alta, hilaren 20an erretiratu behar izan zuen mozioa, lehen ministroak bere dimisioa aurkeztu zuelako. Gauzak horrela, Errepublikako presidenteak kontsulta-erronda bat hasi zuen parlamentuan ordezkariak duten indar politiko guztiekin gehiengo alternatibo bat sortzeko, eta lortu zuen gehiengo hori. 2019ko irailaren 5ean, M5S eta PD alderdiek (2018ko hauteskundeetan lehen eta bigarren indarrak izan zirenak) aliantza bat adostu zuten, gaur egun oraindik indarrean dirauenak, eta, beraz, ez zen beharrezkoa izan hauteskundeetarako deialdirik egitea (Custodero & Rubino, 2019).

Aliantza berri honen programa politikoan bazeuden oinarritzko hainbat puntu: zerga-erreforma bat egiteko beharra, presio fiskala murrizteko eta gastu publikoa arrazionalizatzeko, eta horrekin batera, politika ekonomiko hedatzaile bat aplikatzea, aurrekontuetan desorekarik ez sortzeko; *green deal* bat adostea, ingurumen arloko inbertsioa eta babesa sustatzeko; EBrekiko liskarrak alde batera uztea eta kohesio soziala indartzea, beharrezko aldaketak sustatuz Europako arauak aurrekontu politiken arloan dituzten zurruntasunak gainditzeko (Lauria, 2019).

Halere, Covid-19agatiko itxialdiak jarduera ekonomiko guztiak geldiarazi ostean, Gobernuaren lehentasunak dira osasun arloko laguntza eta hiritarrentzako laguntza ematea eta enpresak suspertzea. Hala, gobernuak hainbat pizgarri-pakete jarri ditu martxan pandemiak eragindako hondamena arintzeko: «*Cura Italia*» dekretuak 25.000 milioi euroko injekzio ekonomikoa aurreikusi du eta 350.000 milioiko mugikortasun finantzarioa (Gazzetta Ufficiale, 2020); «*Liquidità*» dekretuak, berriz, 400.000 milioi euro jarri ditu zirkulazioan enpresentzako kredituak emateko, Estatuak kreditu horien portzentaje handi bat (% 90eraino) bermatuko duelarik (Gazzetta Ufficiale, 2020); eta «*Decreto di Recupero*» dekretuak, 55.000 milioi euroko aurrekontua duenak, ezohiko laguntza-plan bat eskainiko du familientzat, enpresentzat, osasun-sistemarentzat eta I+G-rentzat (Gazzetta Ufficiale, 2020).

Aurrerago, herrialde barruko eskualde arteko mugak erabat ireki ondoren, ekainaren 13an «*Ekonomiaren Egoera Orokorrak*» izeneko elkarrizketa-mahaiak egin ziren. Mahai horietan parte hartu zuten Italiako gobernuko agintari nagusietako batzuek eta Europako figura ekonomiko garrantzitsuek, sindikatuek eta industriako ordezkariak. Ekitaldi hartan, erreforma-plan anbiziotsu bat proposatu zen ekonomia suspertzeko, zeinaren helburua baita hazkundera eta lehiakortasuna berreskuratzea; programa horrek 170.000 milioi euro inguruko kostua izango du 5 urtetan (Trovati, 2020).



## 3. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

### 3.1. Abagune ekonomikoa

Italiak, munduko zortzigarren eta Europako laugarren ekonomiak (Munduko Bankua, 2020), hazkunde-zailtasunak izan ditu 2008ko finantza-krisiaz geroztik. «NDFren Herrialde-txostenaren» arabera, hainbat arrazoi daude bere errendimendu ekonomiko eta sozial baxu horren atzean, besteak beste, hauek: zor publiko handia (munduko handienetako bat, 2019an BPGaren % 133,2raino iritsi zena); zerga-politika desegokia; soldaten hazkunde oso txikia, ia nabariezina, eta erreforma estruktural eskasak (NDF, 2019).

Nahiz eta BPGa eta *per capita* BPGa hazi egin diren azken urteetan (ikusi 1. taula), urteko hazkunde globala makala izan da: duela 30 urte baino gehiagotik, Italiaren hazkundea Europako batez bestekoa baino portzentajezko puntu bat baxuagoa da, gutxi gorabehera. Italiak lehiakortasuna eta balio erantsia galdu du bigarren sektorean, batez ere arrazoi hauengatik: lehiakide berriak agertu dira arlo industrialean (BRICS, Asia hego-ekialdea, e.a.); Ekialdeko Europa asko hazi da eta soldata baxuak ditu; oso gutxi inbertitu da I+G-n; eta Italia behe-mailako eta maila ertaineko produkzio-teknologian espezializatu da (Greco, 2020).

Bestalde, inflazioak gorabehera handiak izan ditu, besteak beste, aipatzekoa da 2016ko % 0,4ko deflazioa, 1959az geroztik errepikatu ez den fenomeno (Istat, 2017). *Il Corriere della Sera* egunkariaren arabera, gastu apalak, etorkizuneko ziurgabetasunak eta petrolioarekiko menpekotasunak eragin zuten nagusiki eskaeraren beherakada eta, ondorioz, baita ere prezioena (Chiesa, 2017). Gaur egun, Europako Banku Zentralak Eurogunerako epe ertaineko helburutzat hartu du tasa baxuagoak -baina betiere % 2 ingurukoak- ezartzea prezioen egonkortasuna mantendu ahal izateko, halere Italia urrun dago helburu hori lortzetik (2019an % 0,6).

Nahiz eta BPGa apur bat hazi den azken urteotan, hazkunde-aurreikuspen guztiak amildu egin dira Covid-19ak eragindako osasun arloko krisiaren ondorioz; horregatik, NDFk berriz kalkulatu eta eguneratu behar izan ditu hazkunde ekonomikoaren adierazle asko: 2020ko apirilean eginiko aurreikuspenen arabera (NDF, 2020), Italia izango litzateke herrialde kaltetuena BPGaren hazkundeari dagokionez, pandemiak gogorren jo duenetako bat delako eta itxialdi zorrotzenetako bat ezarri duelako; hala, % 9,1eko jaitsiera (9,6 puntuko aldea) izango du 2019ko urrian eginiko aurreikuspenekin alderatuta; NDFren 2020ko ekaineko aurreikuspenek (NDF, 2020) diote Italiako ekonomiaren egoerak okerrera egingo duela, BPGaren % 12,8ko jaitsierarekin 2020an, nahiz eta % 6,3 haziko den 2021ean; aldiz, 2020ko urrian eginiko aurreikuspenen (NDF, 2020) arabera, BPGa % 10,6 jaitsiko da 2020an, eta % 5,2 haziko da 2021ean.

Txosten honen 4.5 puntuan («*Perspektiba ekonomikoak*») hizpide hartuko ditugu osasun arloko krisiak eragindako ziurgabetasuna eta egoera ekonomiko zaila.



## 1. taula: Italiako ekonomiaren hazkunde-adierazleen estimazioak, 2017-2021

| HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK              | 2017   | 2018   | 2019   | 2020ko balioespenak |                              |                             | 2021eko balioespenak |                              |                             |
|-------------------------------------------------|--------|--------|--------|---------------------|------------------------------|-----------------------------|----------------------|------------------------------|-----------------------------|
|                                                 |        |        |        | Covid-aren aurretik | Covid-aren ondoren (apirila) | Covid-aren ondoren (ekaina) | Covid-aren aurretik  | Covid-aren ondoren (apirila) | Covid-aren ondoren (ekaina) |
| BPGa (mila milioi EUR)                          | 1.727  | 1.757  | 1.771  | 1.797               | n/a                          | n/a                         | 1.830                | n/a                          | n/a                         |
| BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea) | 1,7    | 0,9    | 0,01   | 0,5                 | -9,1                         | -12,8                       | 0,8                  | 4,8                          | 6,3                         |
| Per capita BPGa (EUR per capita)                | 28.510 | 29.049 | 29.336 | 29.836              | n/a                          | n/a                         | 30.443               | n/a                          | n/a                         |
| Inflazio-tasa (%)                               | 1,3    | 1,2    | 0,6    | 1                   | 0,2                          | Zehaztu gabe                | 1,1                  | 0,7                          | Zehaztu gabe                |
| Langabezia-tasa                                 | 11,3   | 10,6   | 10,0   | 10,3                | 12,7                         | Zehaztu gabe                | 10,2                 | 10,5                         | Zehaztu gabe                |

*Iturria: BasqueTrade-k egina NDFren datuekin: World Economic Outlook Database, 2019ko urria (Covid aurretik), 2020ko apirila eta 2020ko ekaina (Covid ondoren)*

## 3.2. Balantza komertziala

80ko hamarkadatik hona, esportazio eta inportazioen urteko hazkunde-joera positiboa izan da oro har, batez ere Italia EBn sartu zelako eta globalizazioaren fenomenoak zabaltzen zela delako. Italia munduko bederatzigarren esportatzaile eta hamaikagarren inportatzaile handiena bihurtu da Munduko Bankuak eskura dituen azken datuen arabera (Munduko Bankua, 2020).

Halere, balantza komertziala ez da izan beti egonkorra: 2003tik 2011ra (2007an eta 2008an salbu, boom ekonomikoa gertatu baitzen urte horietan) defizitariora izan zen, baina 2012tik aurrera aldatu egin zen joera hori, superabita lortuz (MME, 2020). Esportazioek 2017an izan zuten gorakada nabarmenak lotura zuzena du Txina eta Errusiako merkatuen garapenarekin, hango salmentak % 22,2 eta % 19,3 handitu baitziren, hurrenez hurren (Gilberto, 2018).

## 2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2015-2019)

| Kanpo-merkataritzaren adierazleak                    | 2015    | 2016    | 2017    | 2018    | 2019    |
|------------------------------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Ondasunen inportazioa (milioi USD)                   | 408.932 | 404.445 | 453.122 | 503.240 | 473.512 |
| Ondasunen esportazioa (milioi USD)                   | 456.990 | 461.524 | 507.418 | 549.526 | 532.663 |
| Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)                  | 99.260  | 103.990 | 113.272 | 124.461 | 122.683 |
| Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)                  | 98.553  | 101.402 | 110.828 | 122.546 | 121.422 |
| Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)       | 26,7    | 26      | 27,9    | 29      | 28,5    |
| Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)       | 29,7    | 29,3    | 30,8    | 31,5    | 31,6    |
| Balantza komertziala (milioi USD)                    | 58.475  | 65.759  | 64.445  | 55.777  | 63.778  |
| Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD) | 54.303  | 61.428  | 57.610  | 50.267  | 61.440  |
| Kanpo-merkataritza (BPGaren %)                       | 56,4    | 55,4    | 58,6    | 60,5    | 60,1    |

*Iturria: MME eta Munduko Bankua*



### 3.3. Atzerriko inbertsioa

Gorabehera handiko lau urteren ostean (2008ko finantza-krisia dela medio), Italiako inbertsioak egonkortu egin dira azken urteotan. Italia atzerriko inbertsio zuzeneko (AIZ) fluxu gehien igorri eta jasotzen dituen herrialdeetako bat da: hain zuzen, AIZ gehien jasotzen (27.000M USD) eta bidaltzen (25.000M USD) duten lehen 20 herrialdeen artean dago (Unctad, 2020).

Hona hemen Italia erakargarri egiten duten arrazoiak batzuk: EBko merkatu handienetako bat da, eta munduko fabrikatzaile garrantzitsuenetako bat ere bai; azpiegitura egokiak eta langile kualifikatuak ditu, eta posizio geografiko estrategikoa Mediterraneoaren erdian, topagune egokia delarik Europaren, Afrika Iparraldearen eta Ekialde Ertainaren artean (Santander Trade, 2020). Hala ere, ezin da ahaztu atzerriko inbertitzaileek eragozpen asko aurkitzen dituztela, hala nola, burokrazia eta prozesu administratibo luzeak, lan arloko zerga eta kostu handiak, eta egoera politiko ezegonkorra, iraupen desberdina duten agintaldiekin (Munduko Foro Ekonomikoa, 2019).

2019ko AIZ *stock*-a (une zehatz bateko inbertsio zuzenaren maila kalkulatzeko duen adierazlea) 446.000 milioi USDekoa izan zen, eta zifra hori (BPGaren % 22,3) haziz joan da azken urteetan. Italian sartzen diren AIZ fluxuek KFEGen<sup>6</sup> % 7,4 eta BPGaren % 1 inguru ordezkatzeko dute; horrek esan nahi du, 2013-2018 urteen artean emaitza txarrenak izan dituzten Europako herrialdeetako bat dela (Santander Trade, 2020). AIZ gehiago erakartzeko asmoz, Gobernuak *Invest in Italy* agentziaren egitura indartu zuen, eta 2019ko martxoan ulermen memorandum bat sinatu zuen Txinako gobernuarekin, Zetaren Ibilbide berriarekin bat egiteko (*Belt and Road Initiative*) (Unctad, 2019).

#### 3. taula: Italiaranzko atzerriko zuzeneko inbertsioa (2016-2019)

| ADIERAZLEA                                                                     | 2016    | 2017    | 2018    | 2019    |
|--------------------------------------------------------------------------------|---------|---------|---------|---------|
| Sartzen diren AIZren fluxuak (milioi USD)                                      | 28.469  | 24.047  | 32.886  | 26.569  |
| AIZren <i>stock</i> -a (milioi USD)                                            | 352.634 | 424.733 | 428.272 | 445.741 |
| Iragarritako <i>Greenfield</i> <sup>7</sup> inbertsio kopurua (jomuga: Italia) | 181     | 201     | 170     | 222     |
| AIZren fluxua KFEGen portzentajearekiko                                        | 8,8     | 7       | 8,8     | 7,4     |
| AIZren <i>stock</i> -a (BPGaren %)                                             | 18,9    | 22      | 20,5    | 22,3    |
| <i>Iturria: Unctad</i>                                                         |         |         |         |         |

Unctad-ek Italiako merkatuaren berezitasun hauek zerrendatu zituen «*World Investment Report 2019*» txostenean (Unctad, 2019):

- Munduko 100 multinazional garrantzitsuenen rankingean 16 estatu-enpresa daude, eta horietatik bi Italiakoak dira: Enel, energia elektrikoaren eta gasaren sektoreko operatzaile integratu global garrantzitsuenetako bat, 18. postuan dago; eta Eni, *oil&gas*, kimika, eta argindar zein energia berriztagarrien ekoizpen eta merkaturatzean lan egiten duena, 32. postuan. Estatu-enpresez gain, zerrenda horretan dago orobat Atlantia, errepide- eta aireportu-azpiegituren sektoreko lider globala.
- Garapen bidean dauden herrialdeetan gauzatutako 10 *Greenfield* proiektu garrantzitsuenen artean (2018), hirugarren postuan badago Eni-k zuzendutako proiektu bat, zeinaren helburua den petrolio eta gasa erauztea Angolan. Partzuergo horren asmoa da bere operazioak 2022an abiaraztea eta 2.236 milioi USD inbertituko ditu.

<sup>6</sup> «*Kapital finkoaren eraketa gordina (KFE) da enpresek, gobernuak eta etxeek erositako aktibo finkoen gehikuntzaren balioa, ken saldutako edo desegindako aktibo finkoen lagapenak*», (Santander Trade, 2020).

<sup>7</sup> Atzerriko inbertsio zuzenak egiteko modu bat da: etxe matrize batek filial bat instalatzen du atzerriko herrialde batean lantegi berriak eraikitzeko (BBVA, 2019).



## 3.4. Enplegua

Italiako lan-merkatuak baditu hainbat bereizgarri: zerbitzuen sektorearen garrantzia, langabezia-tasa handia (batez ere gazteen artean) eta eskualdeen arteko desberdintasun handiak (iparraldeko eremu industrializatu eta dinamikoak eta hegoaldeko landa-eremuak, *Mezzogiorno* delakoa). Taula honetara biltzen dira Italiako lan-merkatuaren adierazle garrantzitsuenak (Eurostat, 2020) (Munduko Bankua, 2019):

### 4. taula: Lan-tasa eta langabezia-tasa (2019)

| LAN-ARLOKO ADIERAZLEAK                                                                                  | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|-----------|---------|
| Enplegua guztira (%)                                                                                    | 53,6    | 36,3      | 44,9    |
| Enplegua sektoreka:                                                                                     |         |           |         |
| • Lehen sektorea (%)                                                                                    | 4,7     | 2,3       | 3,7     |
| • Setore industrialia (%)                                                                               | 35,3    | 12,9      | 25,9    |
| • Zerbitzuen sektorea (%)                                                                               | 60      | 84,8      | 70,4    |
| Langabezia-tasa                                                                                         | 9,0     | 11,0      | 10,0    |
| <i>Iturria: Munduko bankua (enplegua sektoreka) eta Eurostat (enplegua guztira eta langabezia-tasa)</i> |         |           |         |

2019an Munduko Bankuak % 44,9ko okupazio-tasa erregistratu zuen 15 urtetik gorako biztanle guztien artean; eta gizonen % 53,6k eta emakumeen % 36,3k ordainpeko lana zuten. Sektoreei dagokienez, zerbitzuen sektorea da lanpostu portzentaje handiena eskaintzen duena, eta azken urteetan hazten jarraitu duen sektore bakarra (Munduko Bankua, 2020), Italia baita bisitari gehien jasotzen dituen munduko bosgarren herrialdea<sup>8</sup>. Aldiz, enplegu-galera handitzen joan da pixkanaka industrian eta lehen sektorean, aurrerapen teknologikoak eta digitalizazioa direla medio. Halere, Italia munduko hamar herrialde industrializatuenen artean dago, eta bera da Europako larre, zereal, fruta eta barazki, olio eta ardo ekoizle handiena (Istat, 2019).



| LEHEN SEKTOREA                                                                                                                            | BIGARREN SEKTOREA                                                                                                                      | HIRUGARREN SEKTOREA                                                                                                                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Europar Batasuneko lehen herrialde da JDB, AGB eta BTB <sup>9</sup> babes-moten kopuruan: 295 (azken datuak 2017koak dira) (Istat, 2019). | Euren jarduera industrialia batez ere herrialdearen iparraldean zentratzen duten ETEek osatzen dute gehienbat (Santander Trade, 2020). | BPGaren % 66,3 ordezkatzan du, eta turismoa -sektoreko jarduera handiena- ekonomiaren balio erantsiaren % 6 da (Santander Trade, 2020). |

## 3.5. Perspektiba ekonomikoak

Covid-19ak eragindako krisia hasi zenetik, munduko perspektiba ekonomikoak goitik behera aldatu dira, batik bat birusak gogorren kolpatutako herrialdeetan, eta horietako bat da Italia. Europako Batzordeak udaberrian aurreikusi zuen Euroguneko ekonomia gehienek % 7,7ko beherakada izango zutela, eta Italiako ekonomia % 9,5 murriztuko zela 2020an, baina orain kalkulatu du atzeraldia hasieran pentsatu baino latzagoa izango dela, % 8,7koa Eurogunean eta % 11,2koa Italian. Gauza bera gertatu da 2021erako aurreikusitako suspertze-joerarekin (% 6,3tik % 6,1era jaitsi da Eurogunean, eta % 6,5etik % 6,1era Italian) (Europako Batzordea, 2020). «*Abagune ekonomikoa*» kapituluaren iragarri bezala, nahiz eta NDFk apirileko txostenean aurreikusi zuen BPGa % 9,1 murriztuko zela 2020an eta % 4,8 haziko zela

<sup>8</sup> Azken datuek diote 61.567,20 mila bidaiari iritsi zirela 2018an, Munduko Bankua.

<sup>9</sup> Jatorri-deitura Babestua, Adierazpen Geografiko Babestua eta Berezitasun Tradizional Bermatua




2021ean, orain eguneratu egin ditu datuak, eta urriko txostenean aurreikusi du 2020ko beherakada % 10,6koa izango dela eta 2021eko hazkundea, berriz, % 5,2koa (NDF, 2020).

2018ko inflazioaren urteko batez besteko egonkortasuna eskualde desberdinetako prezioen gorabehera txikietan laburbiltzen da: urteko batez besteko aldakuntza handiagoa izan zen iparraldean (Lonbardian % +1,3 2018an) eta nabarmen txikiagoa hegoaldean (Basilicatan % +0,4). 2019ari dagokionez, Italiako inflazio-tasa EBko baxuena izan zen, 0,6 puntuko diferentzialarekin. Uste zen indizea hobetu egingo zela 2020an, baina Covid-aren osteko kalkulu berriek diote ekitaldia % 0,4ko jaitsierarekin itxiko dela, eta apur bat hobetuko dela 2021ean (Istat, 2019).

Grafiko honetan ageri dira 2018ko BPGaren eta inflazioaren bilakaera eta estimazioak (2018 – 2021).

### 1. grafikoak: Italiaren perspektiba ekonomikoak Covid-19aren ostean (2018-2021)




Iturria: Agentziak egin NDFFen «World Economic Outlook, October 2020» txostenetik ateratako datuekin

Italiako *Confindustria* patronalak BPGaren % 4,7ko beherakada erregistratu zuen 2020ko lehen hiruhilekoan, eta IHS Markit-ek kalkulatu zuen PMI indizea (*Purchasing Managers' Index*) 31,1 puntu murriztu zela. Era berean, *Confindustria* patronalak 2020rako eginiko kalkuluek diote inbertsioak % 15,5 jaitsiko direla, kontsumoa % 9,9 uzkurtuko dela, enplegua % 7,6 murriztuko dela, eta esportazioek eta inportazioek % 14 eta % 6,8ko beherakadak izango dituztela, hurrenez hurren. Era berean, eta betiere *Confindustria* patronalak emandako datuen arabera, zor publikoa BPGaren % 159,1era iritsiko da 2020an, eta defizit publikoa BPGaren % 11,1ekoa izango da gobernuak Covid-19ari aurre egiteko hartu dituen neurriak direla medio: «Cura Italia», «Liquidità» eta «Decreto di Recupero» dekretuak eta «Economia Berraktibatzeak Erreforma-plana» (*Confindustria*, 2020). *Confindustria* patronalaren arabera, arestian aipatutako adierazleek hobera egin beharko lukete 2021ean (BPGa: % +9,1; kontsumoa: % +5,7; enplegua: % +3,5).

## 4. KANPO-MERKATARITZA

Alemania eta Frantzia dira Italiaren bazkide komertzial garrantzitsuenak, bai hornitzaile modura eta bai bezero modura (2. grafikoa). Europako bazkide garrantzitsuenen artean nabarmentzen dira Suitza (% 5,5), Erresuma Batua (% 5,2) eta Espainia (% 5,1), eta Europakoak ez diren bezeroen artean, berriz, Estatu Batuak (% 9,6) eta Txina (% 2,7). Txina izan da azken urteotan hazkunde-joera handiena erakutsi duena. Europako hornitzaileei dagokienez, Alemania eta Frantziak gain, orobat aipatzekoak dira Herbehereak (% 5,4), Espainia (% 5,1) eta Belgika (% 4,6), eta Europakoak ez direnen artean, aldiz, Txina (% 7,5), Estatu Batuak (% 4,0) eta Errusia (% 3,4) (Nazio Batuak, 2020).

### 2. grafikoa: Italiaren bezero eta hornitzaile garrantzitsuenak (2019)



Iturria: Agentziak egina Nazio Batuen datuekin

Ikusten den bezala, Espainia bi multzoetan dago, eta horrek erakusten du bi herrialdeek harreman sendoa dutela kanpo-merkatartitzaren arloan: Espainia da Italiaren seigarren bazkide esportatzailea (bosgarrena Europako herrialdeen artean) eta bosgarren bazkide inportatzailea (laugarrena Europakoaren artean). Taula honetan ageri dira Italiak 2019an gehien esportatu eta inportatu zituen produktuak, bakoitza bere muga-zerga kodearekin (Nazio Batuak, 2020):

### 5. taula: Italiak gehien esportatu eta inportatutako produktuak (2019)

| ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK                         | Milioi USD | %   | INPORTATUTAKO PRODUKTUAK                         | Milioi USD | %    |
|--------------------------------------------------|------------|-----|--------------------------------------------------|------------|------|
| 84 Makina eta gailu mekanikoak                   | 101.111    | 19  | 27 Erregai mineralak                             | 58.510     | 12,4 |
| 87 Automobilak                                   | 41.427     | 7,8 | 87 Automobilak                                   | 48.087     | 10,2 |
| 30 Produktu farmazeutikoak                       | 33.569     | 6,3 | 84 Makina eta gailu mekanikoak                   | 46.375     | 9,8  |
| 85 Gailu eta material elektrikoak                | 31.777     | 6   | 85 Gailu eta material elektrikoak                | 36.329     | 7,7  |
| 39 Plastikozko lehengaiak eta beren manufakturak | 21.281     | 4   | 30 Produktu farmazeutikoak                       | 27.215     | 5,7  |
| 73 Burdinurtzuko manufakturak                    | 18.427     | 3,5 | 39 Plastikozko lehengaiak eta beren manufakturak | 20.367     | 4,3  |
| 71 Perlak eta harribitxiak                       | 15.444     | 2,9 | 72 Burdinurtua, burdina eta altzairua            | 19.469     | 4,1  |
| 27 Erregai mineralak                             | 15.394     | 2,9 | 29 Produktu kimiko organikoak                    | 16.127     | 3,4  |
| 94 Altzariak eta altzarigintzako artikulua       | 13.796     | 2,6 | 90 Optikako instrumentuak                        | 13.426     | 2,8  |
| 62 Arropak, puntuzkoak izan ezik                 | 13.757     | 2,6 | 71 Perlak eta harribitxiak                       | 12.634     | 2,7  |
| 72 Burdinurtua, burdina eta altzairua            | 13.359     | 2,5 | 62 Arropak, puntuzkoak izan ezik                 | 8.426      | 1,8  |
| 90 Optikako instrumentuak                        | 13.144     | 2,5 | 61 Puntuzko arropak                              | 8.204      | 1,7  |



Iturria: Agentziak egina Comtrade-ren (Nazio Batuak) datuekin

Italiako inportazioen ikuspegi zabalago bat izate aldera, hemen behean kategoría ekonomiko handien arabera eginiko analisi bat aurkezten dugu. Hauek dira partida garrantzitsuenak: erdi-manufakturak (156.578 milioi USD), kapital-ondasunak (76.062 milioi USD), kontsumo-ondasunak (73.428 milioi USD), garraioko elementuak (62.965 milioi USD), energia (58.274 milioi USD) eta elikadura eta edariak (41.270 milioi USD).

## 6. taula: Italiak inportatutako produktu garrantzitsuenak kategoría ekonomiko handien arabera (2019)

| PRODUKTUAK                                                              | MILIOI USD |
|-------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>GUZTIRA</b>                                                          | 871.811    |
| <b>2 ERDI-MANUFATURAK</b>                                               | 156.578    |
| 22 Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrial elaboratuak | 142.457    |
| <b>4 KAPITAL-ONDASUNAK</b>                                              | 76.062     |
| 41 Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik)                      | 49.193     |
| 42 Kapital-ondasunen zati eta osagarriak (garraioko ekipoak izan ezik)  | 26.869     |
| <b>6 KONTSUMO-ONDASUNAK</b>                                             | 73.428     |
| 62 Kontsumo-ondasun erdi-iraunkorrak                                    | 31.495     |
| 63 Kontsumo-ondasun iragankorrak                                        | 29.735     |
| <b>5 GARRAIOKO ELEMENTUAK</b>                                           | 62.965     |
| 51 Garraioko ekipoak, bidaiarientzako autoak                            | 30.278     |
| 53 Garraioko ekipoen piezak eta osagarriak                              | 23.791     |
| <b>3 ENERGIA</b>                                                        | 58.274     |
| 31 Oinarritzko erregai eta lubrifikatzaileak                            | 43.125     |
| <b>1 JANARIAK ETA EDARIAK</b>                                           | 41.270     |
| 12 Elikagai eta edari prozesatuak                                       | 26.291     |

Iturria: Nazio Batuak, BEC Classification by Broad Economic Categories.

Segidan, Italiaren Europako bazkide esportatzaile garrantzitsuenak ageri dira, Nazio Batuen Kategoría Ekonomiko Handien (KEH) sailkapenaren arabera. Taula horretatik ondorioztatu daiteke Espainia dela Italiaren elikagai eta edari esportatzaile handiena, eta Alemania liderra dela energia, erdi-manufaktura, kapital-ondasun eta garraioko elementuen esportazioan. Bestalde, Frantzia da kontsumo-ondasunen esportatzaile nagusia (Nazio Batuak, 2020).

## 7. taula: Italiaren inportazioak Europako potentzia ekonomiko garrantzitsuenetatik (2019)

| PRODUKTUAK             | GUZTIRA | ALEMANIA | FRANTZIA | HERBEHEREAK | ESPAINIA | BELGIKA | SUITZA | ERRESUMA BATUA |
|------------------------|---------|----------|----------|-------------|----------|---------|--------|----------------|
| Guztira (milioi USD)   | 217.223 | 78.121   | 41.335   | 25.971      | 25.203   | 22.039  | 12.286 | 12.268         |
| 1 Janariak eta edariak | 21.741  | 5.404    | 5.467    | 2.974       | 5.471    | 1.453   | 227    | 745            |
| 2 Erdi-manufakturak    | 74.454  | 25.947   | 12.163   | 8.357       | 7.458    | 10.431  | 6.865  | 3.233          |
| 3 Energia              | 5.824   | 1.606    | 1.551    | 938         | 819      | 231     | 162    | 517            |
| 4 Kapital-ondasunak    | 38.449  | 18.438   | 4.837    | 7.547       | 1.638    | 2.307   | 1.151  | 2.531          |
| 5 Garraioko elementuak | 36.043  | 17.835   | 6.877    | 913         | 5.035    | 2.296   | 275    | 2.812          |
| 6 Kontsumo-ondasunak   | 35.807  | 7.764    | 9.628    | 4.729       | 3.327    | 4.896   | 3.561  | 1.902          |
| 7 Beste ondasun batzuk | 4.905   | 1.127    | 812      | 513         | 1.455    | 425     | 45     | 528            |

Iturria: UN (Comtrade), BEC Classification by Broad Economic Categories



## 5. ALDEBIKO HARREMANAK

### 5.1. Euskadiren eta Italiaren arteko merkataritza

«Ecomex-Kanpo-merkataritzako operazio estatistikoak» jasotako datuen arabera, Euskadiko esportazioen fluxua 25.397 milioi eurokoa izan zen, eta esportazio horietatik % 4,6 Italiara bideratu ziren; aldiz, inportazioak 20.121 milioi eurokoak izan ziren, eta inportazio horietatik % 4,8 Italiatik eginikoak izan ziren. Italia EAEn bosgarren bazkide komertziala da (azken datuak 2019koak dira), eta aldebiko merkataritzako operazioak 2.136 milioi eurokoak dira (Ecomex).

2014-2019 urteak kontuan hartuz gero, bi lurraldeen arteko esportazioak eta inportazioak % 15 eta % 16,5 hazi dira, 2018 eta 2019 urteetan izan ezik.

Taula honetan ageri dira Euskadi eta Italiaren arteko azken 5 urteetako kanpo-merkataritzako datuak (Ecomex, 2020):

**8. taula: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza (2014-2019), milaka euro**


| KANPO-MERKATARITZA   | 2014      | 2015      | 2016      | 2017      | 2018      | 2019      | Bilak. 2014-2019 |      | Bilak. 2018-2019 |      |
|----------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|------------------|------|------------------|------|
|                      |           |           |           |           |           |           | Milaka EUR       | (%)  | Milaka EUR       | (%)  |
| Esportazioak         | 1.024.171 | 1.157.232 | 1.050.939 | 1.113.723 | 1.256.724 | 1.177.750 | 153.579          | 15   | -78.974          | -6,3 |
| Inportazioak         | 822.123   | 839.858   | 866.212   | 937.475   | 1.009.469 | 958.111   | 135.988          | 16,5 | -51.358          | -5,1 |
| Balantza komertziala | 202.048   | 317.374   | 184.727   | 176.248   | 247.255   | 219.639   |                  |      |                  |      |

*Iturria: Agentziak egina Ecomex-etik ateratako datuekin*

Segidan, 3. grafikoa aurkezten da -non EAEn eta Italiaren arteko azken urteotako kanpo-merkataritzaren datuak ageri baitira- bi lurraldeen arteko ibilbidearen irudi orokor bat eskaintzeko. 2000-2019 urteen arteko balantza komertziala nagusiki superabitduna izan da Euskadirentzat; baina 2008ko finantza-krisiak eta 2012ko Italiako zorraren krisiak geldiarazi egin zuten azken 20 urteetako goranzko joera.




### 3. grafikoa: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza (2000-2019), milaka euro



Iturria: Agentziak egina Ecomex-etik ateratako datuekin

Era berean, merkatu honen egoera ulertzeko, 4. grafikoan aztertuko da bi lurraldeek 2019tik 2020ko azken datuetara arte izandako kanpo-merkataritza hiruhilekoka, xehekiago ikusteko azken urte osoko bilakaera. Grafiko horrek erakusten du Italiarekiko euskal esportazio eta inportazioek beherakada txiki bat izan zutela 2019ko hirugarren hiruhilekokoan, hilabete haietan jazotako gertakariengatik: Brexit-a eta Txinaren eta Estatu Batuen arteko gerra komertzialak euskal enpresen truke komertzialetan izandako ondorioak (Euskadi.eus, 2019).

### 4. grafikoa: Euskadiren eta Italiaren arteko kanpo-merkataritza hiruhilekoka (2019-2020), milaka euro



Iturria: Agentziak egina Ecomex-etik ateratako datuekin



Covid-19aren pandemia kolpe latza izan da mundu mailako kanpo-merkataritzarentzat, eta Euskadi eta Italia ez dira izan salbuespena. Ecomex-en datuen arabera, EAEren esportazioek eta inportazioek % 53,2 eta % 43,2ko jaitsierak izan zituzten 2020ko apirilean 2019ko apirilarekin alderatuta (Ecomex, 2020). Baina, itxialdiaren ondoren merkataritza berrabiarazi denetik, zenbakiek apur bat hobera egin dute, esportazioak eta inportazioak % 17,1 eta % 26,2 jaitsi baitira abuztuan (eskuragarri dauden azken datuak) (Ecomex, 2020).

Covid-19ak EAEren eta Italiaren arteko alde biko merkataritzan izan duen inpaktuari dagokionez, Euskadi eta Italiaren arteko esportazio eta inportazioek bilakaera berbera mantendu dute, % 13,3 eta % 17,49ko murrizketa erregistratu delarik aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta (Ecomex, 2020). Jaitsiera handiagoa izan da 2020ko bigarren hiruhilekoan, % 22,19ko murrizketa gertatu delarik esportazioetan eta % 32,95koa inportazioetan, zeren, urtarrean eta otsailaren hasieran ez bezala, pandemia barneratua baitzen apirilean, maiatzean eta ekainean (Eustat, 2020).

Taula honetan ageri dira EAEren eta Italiaren artean esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak, produktu-multzoka sailkatuta (DataComex, 2020):

#### 9. taula: EAEk Italiara esportatu eta inportatutako produktu nagusiak (2019)

| ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK                                  | Milaka EUR       | %          | INPORTATUTAKO PRODUKTUAK                                  | Milaka EUR     | %          |
|-----------------------------------------------------------|------------------|------------|-----------------------------------------------------------|----------------|------------|
| 87 Automobilak; traktoreak                                | 225.981          | 19,2       | 84 Makina eta gailu mekanikoak                            | 207.817        | 21,7       |
| 84 Makina eta gailu mekanikoak                            | 198.053          | 16,8       | 72 Burdinurtua, burdina eta altzairua                     | 158.620        | 16,6       |
| 72 Burdinurtua, burdina eta altzairua                     | 150.390          | 12,8       | 73 Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak | 68.992         | 7,2        |
| 40 Kautxua eta bere manufakturak                          | 125.581          | 10,7       | 39 Plastikozko lehengaiak eta beren manufakturak          | 59.359         | 6,2        |
| 73 Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko manufakturak | 83.284           | 7,1        | 85 Gailu eta material elektrikoak                         | 58.034         | 6,1        |
| 85 Gailu eta material elektrikoak                         | 76.270           | 6,5        | 74 Kobrea eta bere manufakturak                           | 44.497         | 4,6        |
| 48 Papera, kartoia eta beren manufakturak                 | 48.192           | 4,1        | 40 Kautxua eta bere manufakturak                          | 42.782         | 4,5        |
| 29 Produktu kimiko organikoak                             | 33.914           | 2,9        | 87 Automobilak; traktoreak                                | 40.292         | 4,2        |
| 76 Aluminioa eta bere manufakturak                        | 24.381           | 2,1        | 76 Aluminioa eta bere manufakturak                        | 31.273         | 3,3        |
| 03 Arraina, krustazeoak, moluskuak                        | 23.542           | 2          | 48 Papera, kartoia eta beren manufakturak                 | 28.133         | 2,9        |
| <b>Guztira</b>                                            | <b>1.177.748</b> | <b>100</b> | <b>Guztira</b>                                            | <b>958.111</b> | <b>100</b> |


Iturria: Agentziak egin DataComex-etik ateratako datuekin

EAEk Espainiatik Italiarako esportazioetan izan duen garrantzia aztertzeko, grafiko honetan elkarrekin alderatzen dira zenbateko portzentajea duen Euskadik Espainiatik Italiara eginiko esportazioetan, eta zenbatekoa Espainiatik mundu osora eginikoetan.

Ikusten da portzentaje hori txikiagoa dela Espainiatik Italiara eginiko esportazioen kasuan, eta handiagoa Espainiatik mundu osora eginikoetan. Kasu bietan, esportazioen portzentajeak antzeko kopuruetan mantendu dira azken urteetan, nahiz eta euskal esportazioek Espainiatik Italiara eginikoetan duten pisua puntu bat baino gehiago jaitsi den 2015 eta 2020 urteen artean (DataComex, 2020).



## 5. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiatik Italiarako esportazioetan (%) (2015-2020)



Iturria: Agentziak egina DataComex-etik ateratako datuekin

10. taulan ikusten da nola banatu diren sektoreak 2015 eta 2019 urteen artean, horrela jakin baitaiteke zein portzentaje duen EAEk Espainiatik Italiarako esportazioetan produktu-mota bakoitzarentzat.

Kasu honetan, Euskadik Espainiatik Italiarako esportazioen % 5,4 baino ez du hartzen 2015-2019 urteen artean, eta beheranzko joera du, ia puntu bat galdu duelarik aztertutako lehen urtearen eta azkenekoaren artean.

EAEtik Italiara gehien esportatutako produktuak ekipo-ondasunak dira (% 14,6), nahiz eta euskal esportazioetan duten guztizko pisua murriztu egin den azken urteetan (2015ean % 19,4, eta 2019an % 13,6). Horiexek dira Espainiatik Italiarako esportazioetan pisu handiena duten euskal produktuak. Atzetik doazkie erdi-manufakturak (% 8,4) eta kontsumo-ondasun iraunkorrak (% 6,8). Aldiz, energia sektoreko produktuak (% 0,7) eta beste merkatu-gai batzuk (% 0,1) dira pisu gutxien dutenak.

## 10. taula: Euskaditik Italiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan sektoreka (%)

| ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK          | 2015       | 2016       | 2017     | 2018       | 2019       | 2019-2015 guztira |
|-----------------------------------|------------|------------|----------|------------|------------|-------------------|
| 1 Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 1,3        | 1,3        | 1,1      | 1,4        | 1,1        | 1,2               |
| 2 Produktu energetikoak           | 1          | 0,5        | 0,2      | 1,2        | 0,5        | 0,7               |
| 3 Lehengaiak                      | 2,7        | 3,5        | 3,7      | 5,8        | 4,8        | 4,1               |
| 4 Erdi-manufakturak               | 9,2        | 8          | 8,4      | 8,4        | 8          | 8,4               |
| 5 Ekipo-ondasunak                 | 19,4       | 14,2       | 12,6     | 13,4       | 13,6       | 14,6              |
| 6 Automobil sektorea              | 4,5        | 4,2        | 4,6      | 5          | 4,5        | 4,6               |
| 7 Kontsumo-ondasun iraunkorrak    | 8          | 7          | 6,8      | 6,2        | 6,2        | 6,8               |
| 8 Kontsumoko manufakturak         | 1,5        | 1,3        | 1,2      | 1,2        | 1,1        | 1,3               |
| 9 Beste merkatu-gai batzuk        | 0          | 0          | 0        | 0,1        | 0,1        | 0,1               |
| <b>Pisua guztira</b>              | <b>6,2</b> | <b>5,2</b> | <b>5</b> | <b>5,5</b> | <b>5,1</b> | <b>5,4</b>        |

Iturria: Agentziak egina DataComex-etik ateratako datuekin



Jakiteko zein sektore ekonomikotan dagoen merkataritza errazagoa Espainia, Euskadi eta Italiaren artean, eta ikusteko nola dagoen EAE gainerako autonomi erkidegoekin alderatuta, taula honetan sailkatzen dira EAETik eta Espainiatik Italiara gehien esportatutako produktuak. Lehen hiru postuetan erdi-manufakturak eta automozio sektorea ageri dira bi lurraldeetan.

### 11. taula: Espainiatik eta Euskaditik Italiarako esportazioen rankinga produktuka (2015-2019 guztira)

| ESPAINIA                          |                    | EUSKADI                           |                  |
|-----------------------------------|--------------------|-----------------------------------|------------------|
| Italiara esportatutako produktuak | Milaka EUR         | Italiara esportatutako produktuak | Milaka EUR       |
| 4 Erdi-manufakturak               | 28.595.297         | 4 Erdi-manufakturak               | 2.397.191        |
| 1 Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 23.908.133         | 5 Ekipo-ondasunak                 | 1.876.310        |
| 6 Automobil sektorea              | 17.758.385         | 6 Automobil sektorea              | 811.161          |
| 8 Kontsumoko manufakturak         | 13.913.662         | 1 Elikagaiak, edariak eta tabakoa | 291.422          |
| 5 Ekipo-ondasunak                 | 12.978.664         | 8 Kontsumoko manufakturak         | 173.391          |
| 2 Produktu energetikoak           | 4.687.580          | 3 Lehengaiak                      | 92.273           |
| 3 Lehengaiak                      | 2.209.798          | 7 Kontsumo-ondasun iraunkorrak    | 80.703           |
| 9 Beste merkatu-gai batzuk        | 1.792.461          | 2 Produktu energetikoak           | 32.614           |
| 7 Kontsumo-ondasun iraunkorrak    | 1.190.052          | 9 Beste merkatu-gai batzuk        | 1.296            |
| <b>Aukeratutako guztizkoa</b>     | <b>107.034.032</b> | <b>Aukeratutako guztizkoa</b>     | <b>5.756.362</b> |

*Iturria: Agentziak egina DataComex-etik ateratako datuekin*

Bukatzeko, Civex-en azken datuen arabera, Euskadiko 491 enpresak esportatzen dute Italiara; horietatik 64 Arabakoak dira, 247 Bizkaikoak eta 180 Gipuzkoakoak (Civex, 2020).

## 5.2. Euskadiren posizionamendua

Atal honetan ikusiko dugu zein pisu espezifiko duten euskal esportazioek Italiaren inportazio guztiekiko, BasqueTrade-ko Adimen Lehiakorreko Unitateak 2019ko urtarrilean argitaratutako «*Nazioarteko merkataritzako joerak eta EAE-ko esportazioen posizionamendua*» txostenaren arabera.

12. taulan ageri da zein den inportazio italiarren euskal kuota sektoreka (eskuragai dauden azken datuak 2017koak dira) eta azken 5 urteetan izandako bilakaera. Hala, ikus liteke Euskadik inportazio italiarretan duen kuota esanguratsua dela, alegia, herrialdeko inportazio guztien % 0,28koa; hau da, Italia zortzigarren postuan dago arestian aipatutako BasqueTrade-ren txostenean aztertzen diren 34 eremu eta herrialdeko zerrendan. Euskaditik Italiarako esportazioak ugariak dira sektore hauetan: altzairu herdoilezin eta aleatuzko barrak eta profilak (% 6,58), armak eta munizioak (% 4,47), hodiak eta osagarriak (% 3,34), metala lantzeko makina-erreminta (% 4,24) eta kautxua eta bere manufakturak (% 2,46). Orobat esportatzen da beste sektore hauetan, baina kasu honetan esportazioak ez dira hain ugariak: merkatu-gaien garraiorako ibilgailuak (% 1,88), altzairu arruntezko barrak eta profilak (% 1,28) eta metalezko manufakturak (% 1,13) (BasqueTrade, 2019).



## 12. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaera hazkundearen arabera

| SECTORES                                          | 2017  | SECTORES                                          | Evol. 2017-2002 | Evol. 2017-2012 |
|---------------------------------------------------|-------|---------------------------------------------------|-----------------|-----------------|
| 72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado   | 6,58% | 93 Armas y municiones                             | 3,06%           | 3,75%           |
| 93 Armas y municiones                             | 4,47% | 84D Grúas y aparatos elevacion                    | 0,83%           | 0,59%           |
| 73A Tubos y accesorios                            | 3,34% | 84C Máquinas herramienta para trabajar metal      | -0,71%          | 0,56%           |
| 84C Máquinas herramienta para trabajar metal      | 3,24% | 87B Vehículos para transporte mercancías          | 1,33%           | 0,53%           |
| 40 Caucho y manufacturas                          | 2,46% | 75, 78-81 Otros metales y manufacturas            | 0,34%           | 0,25%           |
| 87B Vehículos para transporte mercancías          | 1,88% | 84B Motores                                       | 0,11%           | 0,24%           |
| 72B Barras y perfiles acero común                 | 1,28% | 88 Navegación aérea o espacial                    | 0,29%           | 0,24%           |
| 83 Manufacturas metálicas                         | 1,13% | 74 Cobre y sus manufacturas                       | -0,40%          | 0,22%           |
| 84D Grúas y aparatos elevacion                    | 0,98% | 73B Depósitos, recipientes                        | -0,17%          | 0,17%           |
| 76 Aluminio y manufacturas                        | 0,96% | 87A Vehículos automóviles                         | 0,21%           | 0,14%           |
| 87C Partes y accesorios                           | 0,95% | 40 Caucho y manufacturas                          | 0,08%           | 0,11%           |
| 73D Otras manufacturas de hierro o de acero       | 0,74% | 68-70 Piedra, cementos y vidrio                   | -0,26%          | 0,09%           |
| 73C Cables, alambre, tornillería, muelles         | 0,60% | 1 a 5 Productos del reino animal                  | 0,02%           | 0,09%           |
| 47-49 Pasta, papel y sus manufacturas             | 0,57% | 72A Productos planos acero común                  | -0,19%          | 0,07%           |
| 68-70 Piedra, cementos y vidrio                   | 0,53% | 83 Manufacturas metálicas                         | 0,43%           | 0,04%           |
| 82 Herramientas y útiles                          | 0,38% | 44-46 Madera y sus manufacturas                   | -0,11%          | 0,03%           |
| 72A Productos planos acero común                  | 0,38% | 94-96 Muebles, juguetes, otras                    | -0,01%          | 0,02%           |
| 85A Motores y generadores eléctricos              | 0,38% | 85E Otros bienes de equipo eléctricos             | 0,01%           | 0,02%           |
| 87A Vehículos automóviles                         | 0,37% | 71 Joyería y bisutería                            | 0,01%           | 0,00%           |
| 75, 78-81 Otros metales y manufacturas            | 0,37% | 25-27 Productos minerales                         | -0,01%          | 0,00%           |
| 84B Motores                                       | 0,36% | 28-38 Productos químicos                          | -0,01%          | 0,00%           |
| 88 Navegación aérea o espacial                    | 0,33% | 39 Materias plásticas                             | -0,11%          | 0,00%           |
| 84F Otra maquinaria mecánica                      | 0,33% | 6 a 14 Productos del reino vegetal                | 0,00%           | 0,00%           |
| 85B Transformadores                               | 0,28% | 89 Navegación marítima o fluvial                  | 0,00%           | 0,00%           |
| 73B Depósitos, recipientes                        | 0,27% | 15 Grasas y aceites                               | 0,00%           | 0,00%           |
| 84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos | 0,27% | 97 XXI Objetos de arte                            | 0,00%           | 0,00%           |
| 16-24 (-22) Productos alimenticios                | 0,24% | 22 Bebidas                                        | -0,15%          | -0,01%          |
| 74 Cobre y sus manufacturas                       | 0,24% | 16-24 (-22) Productos alimenticios                | -0,16%          | -0,01%          |
| 1 a 5 Productos del reino animal                  | 0,20% | 72C Productos planos acero inoxidable y aleado    | -0,07%          | -0,02%          |
| 85E Otros bienes de equipo eléctricos             | 0,19% | 90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión        | -0,06%          | -0,02%          |
| 84A Calderas y turbinas                           | 0,15% | 86 Vehículos de vías férreas                      | -2,52%          | -0,03%          |
| 94-96 Muebles, juguetes, otras                    | 0,11% | 41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas          | -0,01%          | -0,03%          |
| 86 Vehículos de vías férreas                      | 0,09% | 87D Otros del capítulo de vehículos automoviles   | -0,08%          | -0,03%          |
| 28-38 Productos químicos                          | 0,07% | 72E Otros de fundición hierro y acero             | -0,42%          | -0,03%          |
| 85D Alumbrado                                     | 0,07% | 85A Motores y generadores eléctricos              | -0,22%          | -0,07%          |
| 41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas          | 0,07% | 85C Baterías, acumuladores, electroimanes         | -0,86%          | -0,12%          |
| 90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión        | 0,06% | 84F Otra maquinaria mecánica                      | -0,15%          | -0,13%          |
| 44-46 Madera y sus manufacturas                   | 0,05% | 87C Partes y accesorios                           | 0,42%           | -0,14%          |
| 87D Otros del capítulo de vehículos automoviles   | 0,05% | 84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos | -0,69%          | -0,15%          |
| 39 Materias plásticas                             | 0,05% | 76 Aluminio y manufacturas                        | -0,10%          | -0,17%          |
| 72E Otros de fundición hierro y acero             | 0,04% | 85D Alumbrado                                     | -0,01%          | -0,20%          |
| 72C Productos planos acero inoxidable y aleado    | 0,03% | 47-49 Pasta, papel y sus manufacturas             | -0,17%          | -0,24%          |
| 85C Baterías, acumuladores, electroimanes         | 0,01% | 84A Calderas y turbinas                           | -0,11%          | -0,33%          |
| 71 Joyería y bisutería                            | 0,01% | 73C Cables, alambre, tornillería, muelles         | -0,43%          | -0,35%          |
| 6 a 14 Productos del reino vegetal                | 0,01% | 73D Otras manufacturas de hierro o de acero       | -0,91%          | -0,41%          |
| 25-27 Productos minerales                         | 0,01% | 99 No clasificados                                | -0,03%          | -0,58%          |
| 22 Bebidas                                        | 0,00% | 72B Barras y perfiles acero común                 | -3,60%          | -0,98%          |
| 15 Grasas y aceites                               | 0,00% | 72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado   | -4,65%          | -1,10%          |
| 89 Navegación marítima o fluvial                  | 0,00% | 82 Herramientas y útiles                          | -1,57%          | -1,32%          |
| 99 No clasificados                                | 0,00% | 85B Transformadores                               | 0,19%           | -1,56%          |
| 97 XXI Objetos de arte                            | 0,00% | 73A Tubos y accesorios                            | -3,77%          | -1,75%          |


Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

Hemen aurkezten dugu Euskadik Italian duen sektorekako posizionamendua laburbiltzen duen matrizea, honela interpretatzen dena:

- **Indartsuak:** sektore hauetan asko handitu dira Italiako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiren kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** inportazioak ez dira handitu sektore hauetan, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** sektore hauetan asko handitu dira Italiako inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiren kuota ez da handitu.
- **Interes baxukoak:** sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta ezta ere Euskadiren kuota.



### Crecimiento Importaciones 2012-2017



|                    |                                             |            |                                               |            |                                      |
|--------------------|---------------------------------------------|------------|-----------------------------------------------|------------|--------------------------------------|
| <b>16-24 (-22)</b> | Productos alimenticios                      | <b>73C</b> | Cables, alambre, tornillería, muelles         | <b>85A</b> | Motores y generadores eléctricos     |
| <b>22</b>          | Bebidas                                     | <b>73D</b> | Otras manufacturas de hierro o de acero       | <b>85B</b> | Transformadores                      |
| <b>25-27</b>       | Productos minerales                         | <b>74</b>  | Cobre y sus manufacturas                      | <b>85E</b> | Otros bienes de equipo eléctricos    |
| <b>28-38</b>       | Productos químicos                          | <b>76</b>  | Aluminio y manufacturas                       | <b>86</b>  | Vehículos de vías férreas            |
| <b>39</b>          | Materias plásticas                          | <b>82</b>  | Herramientas y útiles                         | <b>87A</b> | Vehículos automóviles                |
| <b>40</b>          | Caucho y manufacturas                       | <b>83</b>  | Manufacturas metálicas                        | <b>87B</b> | Vehículos para transporte mercancías |
| <b>47-49</b>       | Pasta, papel y sus manufacturas             | <b>84B</b> | Motores                                       | <b>87C</b> | Partes y accesorios                  |
| <b>72A</b>         | Productos planos acero común                | <b>84C</b> | Máquinas herramienta para trabajar metal      | <b>88</b>  | Navegación aérea o espacial          |
| <b>72B</b>         | Barras y perfiles acero común               | <b>84D</b> | Grúas y aparatos elevación                    | <b>89</b>  | Navegación marítima o fluvial        |
| <b>72D</b>         | Barras y perfiles acero inoxidable y aleado | <b>84E</b> | Equipamiento hostelería y aparatos domésticos |            |                                      |
| <b>73A</b>         | Tubos y accesorios                          | <b>84F</b> | Otra maquinaria mecánica                      |            |                                      |

Matrize horretan ikusten da Italian indartsu dagoela makina-erremintaren euskal sektorea, eta baita ere merkatu-gaien garraiorako ibilgailuena, zeintzuetan hazi egin baitira bai inportazioak eta bai kuota. Sektore indartsuen artean daude automozioa, jasogailuak, motorrak eta altzairu arruntezko produktu zapalak. Potentziala duten sektoreen artean aipatzekoak dira automobilen zati eta osagarriak, tresneria, aluminioa eta ostalaritzako ekipamendua.



### 5.3. Aldebiko inbertsioak

Gaur egun, 50 euskal enpresa daude Italian kokatuta; horietatik 35ek ezarpen komertzialak dituzte, eta 15ek produkzio-ezarpenak. Hauek dira sektore nabarmenenak: automatizazioa, automozioa, energia, makina-erreminta, makineria aurreratua eta siderurgia.

Agentziaren iturrien arabera, Italiako 38 enpresa inguru daude Euskadin kokatuta. Enpresa horiek sektore hauetakoak dira: automozioa, elektronika, makina-erreminta eta siderurgia.



## 6. SEKTORE NAGUSIAK

### 6.1. Ekarpena BPGari

Taula honetan Italiako BPGaren banaketa ageri da sektoreka; industria sektorea eta zerbitzuen sektorea dira nagusi.

#### 13. taula: Sektore garrantzitsuenak / BPGa (2019)

|           | SEKTOREA                                          | 2019 |
|-----------|---------------------------------------------------|------|
| BPGaren % | BE nekazaritza, basogintza eta arrantza           | 1,93 |
| BPGaren % | BE industria sektorea (eraikuntza sektorea barne) | 21,4 |
| BPGaren % | BE manufaktura-industria                          | 15   |
| BPGaren % | BE zerbitzuen sektorea                            | 66,3 |

*Iturria: Munduko Bankua*

14. taulan ageri da industria garrantzitsuenen fakturazioa eta Italiako BPGan duten pisua:

#### 14. taula: Sektore ekonomiko eta industrialen ekarpena BPGari<sup>10</sup>

| SEKTOREA                                      | URTEA | FAKTURAZIOA<br>(milioi EUR) | BPGaren<br>% |
|-----------------------------------------------|-------|-----------------------------|--------------|
| Automozioa                                    | 2017  | 105.900                     | 6,1          |
| Sektore farmazeutikoa                         | 2018  | 32.000                      | 1,81         |
| Makina-erreminta, robotika eta automatizazioa | 2018  | 6.775                       | 0,38         |
| Arropa, moda eta osagarriak                   | 2018  | 94.842                      | 5,37         |
| Sektore kimikoa                               | 2018  | 56.000                      | 3,17         |
| Siderurgia                                    | 2018  | 49.198                      | 2,79         |
| Turismoa                                      | 2017  | 154.347                     | 8,89         |

*Iturria: Anfia, Farindustria, Ucimu, Confindustria, Cefic, Federmacchine eta Istat*

<sup>10</sup> Italiako BPGaren kasuan, erreferentziazat hartzen dira 2017koa (1.736.592 milioi EUR) eta 2018koa (1.766.168 milioi EUR) sektore bakoitzak Istat-en eskuratu duen portzentajea kalkulatzeko, <http://dati.istat.it/Index.aspx?QueryId=11965>



Azkenik, taula honetan ageri dira 2018ko merkatu-bolumenak:

## 15. taula: Italiako merkatu-bolumenak (2018)

| SEKTOREA                                                                                           | GUZTIRA (milioi EUR) | Industriako<br>BPGa (%) |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|-------------------------|
| <b>ENERGIA</b>                                                                                     | 48.517               | 6,98                    |
| Petrolioaren eta gas naturalaren erauzketa                                                         | 2BPGa                | 0,41                    |
| Petrolioazko produktu birfinduak                                                                   | 45.458               | 6,54                    |
| <b>ZERBITZUAK ETA BIRZIKLAPENA</b>                                                                 | 139.284              | 20,04                   |
| Birziklapena                                                                                       | 5.813                | 0,84                    |
| Ur bilketa eta banaketa                                                                            | 11.171               | 1,61                    |
| Gas ekoizpena eta banaketa                                                                         | 19.892               | 2,86                    |
| Argindarra                                                                                         | 77.541               | 11,15                   |
| Estoldak eta saneamendua                                                                           | 23.865               | 3,43                    |
| <b>MAKINERIA</b>                                                                                   | 133.432              | 19,19                   |
| Jasotzeko eta manipulatzeko ekipoak                                                                | 11.414               | 1,64                    |
| Hozketa industriala, ontziratzea eta erabilpen orokorreko beste makina batzuk                      | 32.196               | 4,63                    |
| Punpak, konpresoreak, iturriak eta balbulak                                                        | 16.960               | 2,44                    |
| Nekazaritzako eta basogintzako makinak                                                             | 8.848                | 1,27                    |
| Makina-erreminta                                                                                   | 9.877                | 1,42                    |
| Industria metalurgikorako makineria                                                                | 3.070                | 0,44                    |
| Eraikuntza, meatzaritza eta harrobiatarako makinak                                                 | 4.951                | 0,71                    |
| Elikagaiak, edariak eta tabakoa egiteko makinak                                                    | 7.918                | 1,14                    |
| Kautxu, plastiko eta paper industrietarako makinak eta erabilpen berezietarako beste makina batzuk | 11.376               | 1,64                    |
| Bestelako makineria                                                                                | 26.823               | 3,86                    |
| <b>ETXETRESNA ELEKTRIKOAK</b>                                                                      | 10.111               | 1,45                    |
| <b>TRESNA OPTIKOAK ETA ARGAZKIGINTZAKO EKIPOAK</b>                                                 | 5.473                | 0,79                    |
| <b>MOTOR ELEKTRIKOAK, SORGAILUAK ETA TRANSFORMADOREAK</b>                                          | 5.358                | 0,77                    |
| <b>IBILGAILU ETA MOTORRETARAKO MATERIAL ELEKTRIKOA</b>                                             | 13.597               | 1,96                    |
| <b>ARGINDARRAREN BANAKETA ETA KONTROLA</b>                                                         | 10.929               | 1,57                    |
| <b>NEURKETA, NABIGAZIO ETA ENTSEGUETARAKO TRESNAK</b>                                              | 5.432                | 0,78                    |
| <b>HEGAZKINAK ETA IBILGAILU ESPAZIALAK</b>                                                         | 12.884               | 1,85                    |
| <b>IBILGAILUAK ETA MOTORRETAKO PIEZAK</b>                                                          | 57.384               | 8,25                    |
| <b>TREN ETA TRANBIENTZAKO LOKOMOTORRAK ETA MATERIAL BIRAKARIAK</b>                                 | 2.874                | 0,41                    |
| <b>ONTZIAK ETA ITSASONTZIAK</b>                                                                    | 8.251                | 1,19                    |
| <b>ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK</b>                                                                    | 207.740              | 29,88                   |
| <b>Guztira</b>                                                                                     | 695.199              |                         |
| <i>Iturria: Euromonitor</i>                                                                        |                      |                         |



## 6.2. Negozio-aukerak

Nahiz eta Italia aurrekaririk gabeko krisi sanitario eta ekonomiko batean murgilduta dagoen, oraindik ere badaude negozio-aukerak. Hona hemen batzuk:

### Energia

Enel konpainia elektrikoak azaroan eman zuen ezagutzera bere 2021-2023 Plan Estrategikoa, non aurreikusten baitu 40.000 milioi euro inguruko inbertsio zuzenak egingo dituela. Era berean, Vision 2030 plana aurkeztu du, zeinaren bidez 190.000 milioi euro mobilizatuko baititu 2021-2030 urteen artean, trantsizio energetikoa eta hazkunde jasangarria izango direlarik bere estrategiaren ardatza (Enel, 2020).

Danimarkako Copenhagen Offshore Partners konpainiak 740 milioi euro inbertituko ditu Mediterraneoko lehen ur gaineko parke eolikoa eraikitzeko; 7Seas Med deituko da, Siziliako kostatik 35 kilometrora egongo da eta 10 megawatioko ur gaineko 25 aero-sorgailu izango ditu. Konplexu hori kokatuko den tokian itsasoak 300 metroko sakonera du, aproposa turbina flotatzaileentzat baina sobera handia zimendu finkoko *offshore* aero-sorgailuak jartzeko. Ustez, eraikuntza-lanak 2023an hasiko dira (Comelli, 2020).

Gobernua apustu sendoa egin du ingurumenaren alde, eta horren erakusgarri dira berriki martxan jarri dituen *Ecobonus* pizgarri fiskalak, energia eraginkortasun handiagoa lortzeko lanetara bideratuak. Aurreikuspenen arabera, % 110eko kenkariak aplikatuko dira argindar-sarera konektatutako eguzki-xafla fotovoltaikoetan eta energia metatzeko sistemetan eginiko inbertsioengatik. Kenkari hori lortzeko, lanak 2020ko uztailaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira (Celiberti, 2020).

### Espazioko estazio komertziala

Thales Alenia Space-k, Thales (% 67) eta Leonardo (% 33) enpresen arteko *joint venture*-ak, akordio bat sinatu du AEBetako Axiom Space enpresarekin munduko lehen estazio espazial komertziala osatuko duten bi modulu presurizatu egiten hasteko Torinon (Torino Oggi, 2020).

### Azpiegiturak eta garraioa

Paola De Micheli Azpiegitura eta Garraio ministroak «*Italia veloce*» plan anbiziotsua proposatu du aire, itsaso eta lurreko garraio azpiegiturak eta instalazioak berritzeko, eta abiadura handiko trenen sarea osatzeko. Aurreikusten da datozen 15 urteetan 200.000 milioi euroko inbertsioa egingo dela (Savelli, 2020).

### Ikerketa eta garapena

Menarini talde farmazeutikoak iragarri du 4.0 lantegi bat eraikiko duela Florentzian 150 milioi euroko inbertsioa eginda. Fabrikazio adimenduneko lantegia izango da, ekoizpen-teknologia berritzailez eta automatizazio eta digitalizazio sistemez hornitua, gauza izango dena urtean 100 milioi ontzi ekoizteko (3.000 milioi tableta) eta diseinu industrial oso aurreratua izango duena (Il Sole 24 Ore, 2020).

Ekainean berriro hasi dira Siziliako Bio-teknologia eta Ikerketa Bio-medikoko Zentroa eraikitzeko lanak. Azpiegitura hori etorkizuneko teknologi-zentro bat izango da, bio-teknologiako bikaintasun-ikerketa bultzatzera bideratua. Eraikuntza-lanak urtarrian hasi baziren ere, martxoan gelditu egin behar izan ziren pandemiagatik. 90 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin, zentro horrek botika berriak, txertoak eta azken belaunaldiko gailu medikoak garatzeko proiektuak zuzenduko ditu. Kalkulatzen da 2022an zabalduko dela (Fondazione Ri.Med, 2019).

### Mugikortasuna

Gobernua 380 milioi euro bideatuko ditu hiri barruko zein eskualde arteko garraio publikorako autobusak erostera. Kopuru horretatik 170 milioi euro eskuragarri daude 2021erako, beste 130 milioi 2025erako, eta azken 90 milioiak



2033rako. Flota berritzearekin batera, mugikortasun murriztua duten pertsonen sarbideak hobetuko dira eta bidaiarien kontagailuak, lokalizazio-gailuak eta koronabirusari eusteko neurriak integratuko dira (Ministero delle Infrastrutture e dei Trasporti, 2020).

FCA eta Engie enpresek akordio bat lortu dute urrian mugikortasun elektrikoa garatzeko, birkarga-puntuak eraikita etxebizitzetan eta merkataritza-guneetan. Era berean, FCAk iragarri du norabide biko bateriak garatuko dituela ibilgailu elektrikoentzat. Teknologia hori, posible egiten duena ibilgailuen energia elektrikoa sarera igortzea, 2021ean probatuko da Torino inguruan ibilgailu-sare trukerako 2 puntu eraikita (La Repubblica, 2020).

Faw konpainia txinatarrek, Txinako fabrikatzaile handiena Silk EV-rekin batera (korporazio honek egoitzak ditu Txinan, Estatu Batuetan eta Italiako Emilia-Romaña eta espezializatuta dago autoen ingeniarietza eta diseinuan), 1000 milioi euro inbertituko ditu gama altuko auto elektriko eta entxufagarrien plangintza, ingeniarietza eta fabrikaziorako *Motor Valley*-n (Emilia-Romaña). Ibilgailu elektrikoaren lehen poloa da zeinetan Faw-k Txinatik kanpo inbertitzen duen, eta aukera emango du balio erantsi handiko proiektu handiak garatzeko automozio sektoreko ikerketa eta berrikuntza arloetan (Regione Emilia-Romagna, 2020).

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) ibilgailu elektrikoen birkarga-sarearen zabalkundea babestu du Italian, 25 milioi euroko mailegua egin diolarik hamar urterako. Be Charge mugikortasun jasangarria garatzen espezializatutako enpresa bat da, Be Power Group taldearen filiala, eta berak gidatuko du plan hori, guztira 30.000 birkarga-puntu instalatzeko (Shrestha, 2020).

### **Burdinbide sektorea**

Italiako Snam konpainiak –mundu mailako liderretako bat trantsizio energetikoan– eta Alstom enpresa frantsesak –lider globala mugikortasun jasangarriko sistema integratuetan– bost urteko akordio bat sinatu dute hidrogenozko trenak garatzeko Italian. Erregaiaren produkzio, garraio eta hornidurarako azpiegitura Snam-en esku geldituko da, eta Alstom-ek bere gain hartuko du hidrogenozko trenen (berriak edo eraldatuak) hornikuntza eta mantenimendua. Uste da proiektua 2021 hasieran jarriko dela martxan (Snam, 2020).


EIBk, Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funttsaren (IEEF) bitartez, 68 milioi euroko mailegu bat eman dio Volturino Erakunde Autonomoari (EAV) –Campania eskualdeko burdinbideak kudeatzen dituen erakundeari– 40 tren elektriko berri eros ditzan (Europako Batzordea, 2020). Bestalde, EAVk 220 milioi euro inguru inbertituko ditu datozen bost urteetan, gaur egun martxan dauden 40 trenak tren elektrikoekin ordezkatzeko. Flota hori Napoli eta inguruetako *Circumvesuviana* trenbide-sareko sei lineetan ibiliko da –sare hori 47 udalerritara iristen da–, errepideko trafikoa arintzeko eta atmosferako kutsadura murrizteko (Railway Technology, 2020).

Turismo eta kultur jardueren ministro Dario Franceschini-k ezagutzera eman du Adriatikoko bizkarrezur proiektua, Bologna eta Taranto hiriak abiadura handiko trenbide-linea batekin lotuko dituen plana, alegia. Une honetan hobekuntza-lanak egiten ari dira Bolognatik Lecce-rako trenbideak abiadura handiko trenetara egokitzeko (Il Sole 24 Ore, 2020).



International Trade Center-ek dio hauek direla inportaziorako potentziala duten produktuak:

## 16. taula: Italiarentzat potentzial inportatzailea duten sektore garrantzitsuenak



Iturria: International Trade Center



## 7. NAZIOARTEKO HARREMANAK

### 7.1. Nazioarteko kidesunak

Italia nazioarteko laurogei bat erakundetako kide da, euren helburua delarik, besteak beste, konponbideak bilatzea arazo politiko-militarrei, arazo ekonomiko-finantzarioei eta garapen sozialaren arloko arazoei, eta halaber ingurumen-kudeaketa eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren kudeaketa kontrolatzea (globalEDGE, 2020). Hauek dira antolakunde esanguratsuenak, hamarkadaka sailkatuta:

- 40ko hamarkada
  - 1944: **NDF** eta Munduko Bankua (1947an bat egin zuen)
  - 1945: **Nazio Batuak** (1955ean bat egin zuen)
  - 1948: **OME** (Osasunaren Munduko Elkartea)
  - 1949: **Europako Batzordearen** eta **NATO**ren kide fundatzailea (Atlantiko Iparraldeko Itunaren Antolakuntza)
- 50eko hamarkada
  - 1956: **Pariseko Klubaren** kide fundatzailea
- 60ko hamarkada
  - 1961: **ELGA**ren kide fundatzailea (Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakuntza)
  - 1964: **Unctad** (Merkataritza eta Garapenerako Nazio Batuen Konferentzia)
- 70eko hamarkada
  - 1975: **G7** taldearen (jatorrian G8 zena) kide fundatzailea
- 90eko hamarkada
  - 1993: **EB**, Europar Batasunaren kide fundatzaile izan zen 1952an
  - 1995: **Schengen Ituna** (1990ean sinatua 1985ean Belgika, Frantzia, Alemania, Luxenburgo eta Herbehereak biltzen zituen akordioaren ondoren) eta **OME**ren kide fundatzailea
  - 1999: **G20** taldearen kide fundatzailea



## 7.2. Merkataritza-akordioak

Nola Italia EBko kide den, gogora ekarriko ditugu EBk hirugarren herrialde edo eskualdeekin dituen akordio komertzial esanguratsuenetako batzuk (Europako Batzordea, 2020):

### 17. taula: EBren eta hirugarren herrialde edo eskualdeen arteko akordio komertzial garrantzitsuenak

|                                                                                     |                      |                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|    | <b>EB + KANADA</b>   | Akordio Ekonomiko eta Komertzial Globala ( <i>Comprehensive Economic and Trade Agreement – CETA</i> )                                                                                                       |
|    | <b>EB + JAPONIA</b>  | Elkartze Ekonomikoko Akordioa ( <i>Economic Partnership Agreement – EPA</i> ). Inbertsioak Babesteko Akordio bat ere negoziatzen ari dira                                                                   |
|    | <b>EB + MERCOSUR</b> | Lankidetzako Eskualde arteko Akordio Markoa                                                                                                                                                                 |
|  | <b>EB + MEXIKO</b>   | Elkartze Ekonomikoko, Hitzarmen Politikoko eta Lankidetzako Akordioa (Akordio globala) 2000. urtetik. Gaur egun, akordio berri bat negoziatzen ari dira, eta berresten bada indarrean dagoena ordezkatu du. |
|  | <b>EB + SINGAPUR</b> | Merkataritza Libreko eta Inbertsioak Babesteko Akordioa                                                                                                                                                     |
|  | <b>EB + VIETNAM</b>  | Merkataritzako eta Inbertsioak Babesteko Akordioa. Azken hori EBko kide guztiek berretsi behar dute.                                                                                                        |

*Iturria: Agentziak egina Europako Batzordearen datuekin*

Horiez gain, EB hainbat negoziazio-prozesutan murgilduta dago Australia, Zeelanda Berria, Erresuma Batua (Brexit-aren ondoren), Estatu Batuak (Merkataritza eta Inbertsioetarako Itun Transatlantikoa), ASEAN, India, Txile, Maroko eta, besteak beste, Txinarekin (Inbertsioetarako Akordioa), (Europako Batzordea, 2020). Era berean, nola konpromisoa hartu duen Afrika, Karibe eta Pazifikoko herrialdeei munduko ekonomian integratzen laguntzeko, EBk Elkartze Ekonomikoko Akordioak ditu horietako askorekin (Europako Batzordea, 2020).



## 8. ASKOTARIKO ARRISKUAK

Coface aseguru-etxeak<sup>11</sup> munduko 160 herrialde sailkatzen ditu, kontuan hartuta zein den enpresen ez-ordaintze arriskua (oso baxutik hasi eta arrisku larriaino), eta herrialde bakoitzaren indar-gune eta ahulune nabarmenenak laburtzen ditu.

### 1. irudia: Coface herrialde arriskua (2019)



Iturria: coface.es

«Herrialde Arriskuaren Ebaluazioen Mapa – 2019ko urtarrila» agiriaren Covid aurreko laburpen honetan (Coface, 2019), ikus daiteke zein den ez-ordaintze arriskua Europako herrialdeetan eta Mediterraneo ertzean dauden hainbat herrialdeetan. Enpresen ez-ordaintze arriskuari dagokionez, Europan badaude oso arrisku baxua dutenak (Alemania; Herbehereak) edo arrisku baxua dutenak (Frantzia; Espainia), baina Italia arrisku “onargarria” dutenen multzoan (A4) dago sailkatuta.

Halere, pandemiak herrialde-arriskua ere kolpatu du eta, ondorioz, Coface-k hainbat balore aldatu behar izan ditu beherantz; hala, Italia arrisku “onargarria” duten herrialdeen multzotik (A4) arrisku “nabarmena” duten herrialdeen multzora (B) igaro da (Coface, 2020).

Taula honetan ageri da Italiaren *rating* berria eta bere indar-gune eta ahulune garrantzitsuenak.

### 18. taula: Italiako ekonomiaren indar-guneak eta ahuluneak

| HER<br>RIAL<br>DEA | HERRIALD<br>EAREN<br>ARRISKUA | NEGOZIOETARA<br>KO GIROA | OHARRAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|--------------------|-------------------------------|--------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Italia             | A4 → B <sup>12</sup>          | A2 → B                   | <p>- INDAR-GUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Manufaktura-industria sendoa (automozioa, sektore farmazeutikoa, arropagintza...)</li> <li>Lehiakortasuna eta indarra berreskuratu ditu esportazioetan</li> <li>Bankuetako aktiboak nabarmen handitu dira</li> <li>Abantaila konparatiboa du goi-mailako kalitateko elikagaietan</li> <li>Turismoaren industria gorantz doa eta oraindik badu potentziala</li> </ul> <p>- AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Zor publiko handia eta posizio negatiboa nazioarteko inbertsio garbietan</li> <li>Gazteen langabezia-tasa handia eta, ondorioz, talentuen ihesa</li> <li>Produktibitate gutxiko enpresen portzentaje handia (enpresen % 90 baino</li> </ul> |

<sup>11</sup> Mundu mailako erreferentia da kreditu-aseguruetan, arriskuen kudeaketan eta ekonomian

<sup>12</sup> Covid-aren aurretik eta ondoren



gehiagok 10 langile edo gutxiago dituzte)

- Sistema parlamentario ezegonkor eta zatitua
- Desberdintasun handiak eskualdeen artean eta antolakunde kriminalak

Iturria: Agentziak egina Coface-ren datuekin

## Arriskuen ebaluazioa

Beste herrialde askotan bezala, Covid-19aren pandemiak ezegonkortasun handia eragin du Italian, eta ziurgabetasun ekonomiko eta soziala sortu du. NDFk ohartarazi du neurri fiskal garrantzitsuak hartu beharko direla pandemiak familietan eta negozioetan eragin duen inpaktu negatiboa leuntzeko, enpresak ez daitezen masiboki itxi eta langabezia ez dadin gehiago hazi. Era berean, funtsak txalotu egin ditu Estatuaren neurri batzuk, esaterako: zergak, gizarte segurantzako kotizazioak eta, zenbait kasutan, hipotekaren hileroko kuotak aldi batez etetea, eta alokairuaren % 60ko kreditu fiskalak ematea negozio txikiei (NDF, 2020).

Koronabirusak eragindako arriskuez gain, badaude kontuan hartu beharreko beste arrisku batzuk ere (Coface, 2020):



**Politikoak:** nahiz eta Gobernu berriak hobetu egin nahi dituen politika fiskalak, migrazio-politikak eta Bruselarekin duen harremana, Italiako sistema parlamentarioa oso ezegonkorra da eta, seguruenik, gobernu horrek ez du bere agintaldia bukatuko hauteskunde berriak deitu gabe.



**Fiskalak:** EBk presio egin zion Italiako Gobernuari bere defizit estrukturala BPGaren % 0,6 murrizteko. Baina M5S-PD aliantzaren lankidetzarako jarrerari esker eta herrialdeak bizi duen atzeraldiaren ondorioz, azkenean onartu zuen defizit hazkorra aplikatzen jarrai zezala, hau da, defizita handitzen joango da orokorrean eta estrukturaliki, % 2,2 eta % 1,1 hurrenez hurren. Plan horretan aipatzekoa da ez zirela onartu BEZaren igoera (% 22tik % 24,2ra), ez eta beste hainbat neurri, zeintzuen helburua baitzen zerga-iruzurrari aurre egitea, eta horrela konpentsatzea BEZa igo ez izanak eta diru-sarrera txikiko familiei zergak jaitsi izanak eragingo dituen galerak. Horien artean daude diruzkoak ez diren ordainketak sustatzea (adibidez, kreditu txartel bidez kobratzeari uko egiten diotenak zigortzea), espetxe-zigor zorrotzagoak ezartzea eta eskudiruzko salerosketen gehienezko muga murriztea.



**Ekonomikoak:** herrialdearen aurreikuspen ekonomikoak ez ziren onak osasun krisiaren aurretik. Produktibitateak ez zuen hobera egin eta, kanbio-tasaren doikuntzarik ezean, lanaren kostua murriztea zen produktibitatea hobetzeko modu bakarra. Halere, *per capita* errenta ia ez da aldatu Euroa iritsi zenetik, beraz, herritarrek ez dute begi onez ikusten erreforma.



## 9. ONDORIOA

Bere zor publiko handia, politika kaotikoa, lan arloko kostu handiak eta zerga-politika desegokia gorabehera, Italia munduko zortzigarren ekonomia da, eta munduko laugarrena. Mundu osoko AIZ fluxuak jaso eta inbertitzen dituen 20 ekonomietako bat bihurtu da: 27.000 milioi USD jaso eta 25.000 milioi USD inbertitu ditu, fabrikatzaile globala delako, Mediterraneo itsasoaren erdian kokatua eta EBko merkatu handienetako batekin. Munduko herrialde esportatzaile eta inportatzaile garrantzitsuenetako bat da.

Koronabirusaren pandemiak gogor kolpatu du Italiako merkatua, aurrekaririk gabeko testuinguru ekonomiko eta sozial bat sortzeraino. Nazioarteko Diru Funtsak bere urriko txostenean kalkulatu du BPGaren murrizketa % 10,6koa izango dela 2020an, eta % 5,2 haziko dela 2021ean, nahiz eta Covid-19aren aurreko aurreikuspenek zioten 2020ko hazkundera % 0,5koa izango zela, eta 2021ekoa, berriz, % 0,8koa.

EAerekiko harreman komertzialari dagokionez, Euskadik sarpen-maila handia du Italian. Hain zuzen, Italia da Euskadiren bosgarren bazkide komertziala, 2.136 milioi euroko aldebiko merkataritzarekin, eta bien arteko esportazio eta inportazioak % 15 eta % 16,5 handitu dira 2014-2019 urteen artean. Euskaditik Italiara gehien esportatzen diren produktuak dira erdi-manufakturak, ekipo-ondasunak eta automobil sektoreko produktuak. Halere, makina-erreminta eta merkatu-gaien garraiorako ibilgailuen sektorea dira Italian presentzia handiena duten Euskadiko sektore indartsuak, nahiz eta badauden nabarmentzen diren beste batzuk ere: automozioa, jasogailuak, motorrak eta altzairu arruntezko produktu zapalak. Eta potentziala duten sektoreak ere badaude, hala nola, tresnak, aluminioa edo ostalaritzako ekipamendua.

Kontuan izanik datu horiek, eta nahiz eta 2020. urterako perspektiba ekonomikoak etsigarriak diren, Italiak lehentasunezko herrialde izaten jarraitzen du EAErentzat, negozio-aukera ugariak eskaintzen baititu sektore anitzetan, adibidez hauetan: energia, mugikortasuna edo azpiegiturak.



## 10. ERREFERENTZIAK

- Acicae. (2020). *Automozioaren euskal sektorea*. <https://www.acicae.es/sector> helbidetik eskuratua
- Banca d'Italia. (2019ko abenduak 20). *Investimenti diretti per paese controparte*. <https://www.bancaditalia.it/statistiche/tematiche/rapporti-estero/investimenti-diretti/index.html> helbidetik eskuratua
- BasqueTrade. (2019). *Nazioarteko merkataritzako joerak eta euskal esportazioen posizionamendua*.
- BBVA. (2019ko otsailak 5). *2018: erresilientziak markatutako urtea maileguen munduan*. <https://www.bbva.com/es/2018-un-ano-marcado-por-la-resiliencia-en-el-mundo-de-los-prestamos/> helbidetik eskuratua
- Celiberti, M. (2020ko ekainak 10). *Ecobonus 110 come funziona, esteso fino al 2022 e per seconde case*. *The Italian Times*, or. [theitaliantimes.it/economia/decreto-ecobonus-sismabonus-detrazione-sconto-fattura-immediato\\_100620/](https://theitaliantimes.it/economia/decreto-ecobonus-sismabonus-detrazione-sconto-fattura-immediato_100620/).
- Chiesa, F. (2017ko urtarrilak 4). *Italia nel 2016 in deflazione, è la prima volta dal 1959*. *Corriere della Sera*, or. [https://www.corriere.it/economia/17\\_gennaio\\_04/italia-2016-deflazione-prima-volta-1959-46d27664-d265-11e6-af42-cccac9ae7941.shtml](https://www.corriere.it/economia/17_gennaio_04/italia-2016-deflazione-prima-volta-1959-46d27664-d265-11e6-af42-cccac9ae7941.shtml).
- CIA. (2020ko ekainak 2). *The World Factbook*. <https://www.cia.gov/library/publications/the-world-factbook/geos/it.html> helbidetik eskuratua
- Civex. (2020ko maiatzak 7). *Euskadiko Katalogo Industrial eta Esportazioen Katalogoa*. <https://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-civex/es/x76aAppWar/index> helbidetik eskuratua
- Coface. (2019ko otsailak 6). *HERRIALDE ARRISKUAREN EBALUAZIOAREN MAPA 2019*. <https://www.coface.es/actualidad-economica-financiera/noticias-economicas/Mapa-Evaluacion-Riesgo-Pais-Enero-2019> helbidetik eskuratua
- Coface. (2020ko otsaila). *Economic Studies and Country Risks: Italy*. <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Italy> helbidetik eskuratua
- Coface. (2020ko ekainak 9). *HERRIALDE ARRISKUAREN EBALUAZIOAREN MAPA - 2020ko EKAINA*. <https://www.coface.es/actualidad-economica-financiera/noticias-economicas/Mapa-Evaluaciones-Riesgo-Pais-Junio-2020> helbidetik eskuratua
- Comelli, E. (2020ko ekainak 15). *Nascerà in Sicilia il primo parco eolico galleggiante del Mediterraneo*. *Il Sole 24 Ore*, or. <https://www.ilsole24ore.com/art/nascera-sicilia-primo-parco-eolico-galleggiante-mediterraneo-ADIXfxX>.
- Confindustria. (2020ko maiatzak 15). *Previsioni Italia: faticosa risalita dopo il crollo, investimenti ed export soffrono più dei consumi*. <https://www.confindustria.it/wcm/connect/097b38df-0cab-4f01-81fc->



f98a530824cb/Congiuntura+flash\_150520\_Confindustria.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=ROOTWORKSPACE-097b38df-0cab-4f01-81fc-f98a530824cb-n8nJk8S helbidetik eskuratua

- Custodero, A., & Rubino, M. (2019ko abuztuak 20). Crisi di governo, le dimissioni di Conte. *La Repubblica*, or. [https://www.repubblica.it/politica/2019/08/20/news/crisi\\_di\\_governo\\_conte\\_al\\_senato-233949397/?refresh\\_ce](https://www.repubblica.it/politica/2019/08/20/news/crisi_di_governo_conte_al_senato-233949397/?refresh_ce).
- DataComex. (2020ko maiatzak 6). *Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak*. [http://datacomex.comercio.es/principal\\_comex\\_es.aspx](http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx) helbidetik eskuratua
- Ecomex. (2020ko urriak 19). *EAEko esportazioak % 17,1 murriztu ziren 2020ko abuztuan, eta inportazioak % 26,2*. [https://www.eustat.eus/elementos/En-agosto-de-2020-las-exportaciones-de-la-CA-de-Euskadi-bajan-un-17,1-y-las-importaciones-un-26,2-/not0017650\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/En-agosto-de-2020-las-exportaciones-de-la-CA-de-Euskadi-bajan-un-17,1-y-las-importaciones-un-26,2-/not0017650_c.html) helbidetik eskuratua
- Ecomex. (2020ko urtarrilak 21). *EAEko kanpo-merkataritza honakoen arabera: fluxua, lurralde historikoa, herrialdea, muga-zerga sekzioa, unitatea eta hiruhilekoa; EAEko kanpo-merkataritza honakoen arabera: fluxua, lurralde historikoa, herrialdea, muga-zerga sekzioa, unitatea eta urtea*. [https://es.eustat.eus/banku/id\\_4111/indexLista.html](https://es.eustat.eus/banku/id_4111/indexLista.html) helbidetik eskuratua
- Ecomex. (2020ko ekainak 18). *EAEko ondasunen esportazioak % 53,2 murriztu ziren 2020ko apirilean, eta inportazioak % 43,2*. [https://www.eustat.eus/elementos/las-exportaciones-de-bienes-de-la-ca-de-euskadi-descendieron-un-532-y-las-importaciones-un-432-en-abril-de-2020/not0017404\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/las-exportaciones-de-bienes-de-la-ca-de-euskadi-descendieron-un-532-y-las-importaciones-un-432-en-abril-de-2020/not0017404_c.html) helbidetik eskuratua
- Ecomex. (d.g.). *EAEko esportazioen rankinga herrialdeka (p). 2019; EAEko inportazioen rankinga herrialdeka (p). 2019*. [https://www.eustat.eus/estadisticas/tema\\_374/opt\\_0/tipo\\_1/ti\\_comercio-exterior/temas.html](https://www.eustat.eus/estadisticas/tema_374/opt_0/tipo_1/ti_comercio-exterior/temas.html) helbidetik eskuratua
- Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. (2017). *Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatu Plana 2017-2020*. <https://www.ciencia.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.7eeac5cd345b4f34f09dfd1001432ea0/?vgnnextoid=83b192b9036c2210VgnVCM1000001d04140aRCRD> helbidetik eskuratua
- Enel. (2020ko azaroak 24). *Enel's 2030 vision in 2021-2023 Strategic Plan: a decade of opportunities*. <https://www.enel.com/es/medios/explora/busqueda-comunicados-de-prensa/press/2020/11/enels-2030-vision-in-20212023-strategic-plan-a-decade-of-opportunities-> helbidetik eskuratua
- Europako Batzordea. (2019). *Sustainable development in the European Union*. <https://ec.europa.eu/eurostat/documents/3217494/9940483/KS-02-19-165-EN-N.pdf/1965d8f5-4532-49f9-98ca-5334b0652820>: Imprimerie Bietlot.
- Europako Batzordea. (2020ko uztailak 7). *European Economic Forecast. Summer 2020*. [https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-performance-and-forecasts/economic-forecasts/summer-2020-economic-forecast-deeper-recession-wider-divergences\\_en](https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-performance-and-forecasts/economic-forecasts/summer-2020-economic-forecast-deeper-recession-wider-divergences_en) helbidetik eskuratua
- Europako Batzordea. (2020ko urtarrilak 10). *Il Piano di investimenti per l'Europa finanzia 40 nuovi treni elettrici in Italia*. [https://ec.europa.eu/italy/news/20200110\\_piano\\_investimenti\\_per\\_l\\_europa\\_finanzia\\_la\\_circumvesuviana\\_d\\_i\\_napoli\\_it](https://ec.europa.eu/italy/news/20200110_piano_investimenti_per_l_europa_finanzia_la_circumvesuviana_d_i_napoli_it) helbidetik eskuratua



- Europako Batzordea. (2020). *Merkatu Bakarra*. [https://ec.europa.eu/info/policies/single-market\\_es](https://ec.europa.eu/info/policies/single-market_es) helbidetik eskuratua
- Europako Batzordea. (2020ko maiatzak 12). *Negotiations and agreements*. <https://ec.europa.eu/trade/policy/countries-and-regions/negotiations-and-agreements/> helbidetik eskuratua
- Europako Batzordea. (2020ko maiatza). *OVERVIEW OF ECONOMIC PARTNERSHIP AGREEMENTS*. [https://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2009/september/tradoc\\_144912.pdf](https://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2009/september/tradoc_144912.pdf) helbidetik eskuratua
- Europako Batzordea. (2020ko maiatza). *OVERVIEW OF FTA AND OTHER TRADE NEGOTIATIONS*. [https://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2006/december/tradoc\\_118238.pdf](https://trade.ec.europa.eu/doclib/docs/2006/december/tradoc_118238.pdf) helbidetik eskuratua
- Eurostat. (2020ko apirilak 2). *Database*. <https://ec.europa.eu/eurostat/data/database> helbidetik eskuratua
- Euskadi.eus. (2019ko abenduak 23). *Euskal ekonomiaren hiruhilekoko txostena (2019ko hirugarren hiruhilekoa)*. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/informe-trimestral-de-la-economia-vasca-tercer-trimestre-de-2019/> helbidetik eskuratua
- Eustat. (2020ko abuztuak 21). *EAEko kanpo-merkataritza honakoen arabera: fluxua, lurralde historikoa, herrialdea, muga-zerga sekzioa, unitatea eta aldia (2019-1; 2019-2; 2020-1; 2020-2)*. [https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX\\_4111\\_pa041t.px/table/tableViewLayout1/?rxid=a8d22434-33b6-4b34-aa60-141ae423fe0c](https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_4111_pa041t.px/table/tableViewLayout1/?rxid=a8d22434-33b6-4b34-aa60-141ae423fe0c) helbidetik eskuratua
- Eustat. (2020ko urtarrilak 21). *EAEko kanpo-merkataritza honakoen arabera: fluxua, lurralde historikoa, herrialdea, muga-zerga sekzioa, unitatea eta hiruhilekoa; EAEko kanpo-merkataritza honakoen arabera: fluxua, lurralde historikoa, herrialdea, muga-zerga sekzioa, unitatea eta urtea*. [https://es.eustat.eus/banku/id\\_4111/indexLista.html](https://es.eustat.eus/banku/id_4111/indexLista.html) helbidetik eskuratua
- Fondazione Ri.Med. (2019ko uztailak 2). *Aggiudicato il bando per i lavori di costruzione del Centro Ri.MED*. <http://www.fondazionerimed.eu/contents/PartNews.aspx?id=1094> helbidetik eskuratua
- Gazzetta Ufficiale. (2020ko martxoak 17). *DECRETO-LEGGE 17 marzo 2020, n. 18. Misure di potenziamento del Servizio sanitario nazionale e di sostegno economico per famiglie, lavoratori e imprese connesse all'emergenza epidemiologica da COVID-19. (20G00034)*. <https://www.gazzettaufficiale.it/eli/id/2020/03/17/20G00034/sg> helbidetik eskuratua
- Gazzetta Ufficiale. (2020ko maiatzak 19). *DECRETO-LEGGE 19 maggio 2020, n. 34. Misure urgenti in materia di salute, sostegno al lavoro e all'economia, nonche' di politiche sociali connesse all'emergenza epidemiologica da COVID-19*. <https://www.gazzettaufficiale.it/eli/id/2020/05/19/20G00052/sg> helbidetik eskuratua
- Gazzetta Ufficiale. (2020ko apirilak 8). *DECRETO-LEGGE 8 aprile 2020, n. 23. Misure urgenti in materia di accesso al credito e di adempimenti fiscali per le imprese, di poteri speciali nei settori strategici, nonche' interventi in materia di salute e lavoro, di proroga di termini amministrativi*. <https://www.gazzettaufficiale.it/eli/id/2020/04/08/20G00043/s> helbidetik eskuratua
- Giliberto, J. (2018ko otsailak 15). *Commercio estero in crescita per un valore del +7,4% nel 2017. Il Sole 24 Ore*, or. <https://www.ilsole24ore.com/art/commercio-estero-crescita-un-valore-74percento-2017-AEEAka0D>.



- globalEDGE. (2020). *Italy: Government*. <https://globaledege.msu.edu/countries/italy/government> helbidetik eskuratua
- Greco, P. (2020ko otsailak 20). *Perché l'Italia non cresce. Il BO Live Università di Padova*, or. <https://ilbolive.unipd.it/it/news/italia-non-cresce-economia-PIL>.
- Il Sole 24 Ore. (2020ko urriak 12). *Dorsale adriatica, il progetto che unisce Tav e bici*. <https://www.ilssole24ore.com/art/dorsale-adriatica-progetto-che-unisce-tav-e-bici-ADjopsu> helbidetik eskuratua
- Il Sole 24 Ore. (2020ko ekainak 6). *Menarini investe 150 milioni in un nuovo stabilimento*. <https://toscana24.ilssole24ore.com/art/oggi/2020-06-06/menarini-investe-milioni-nuovo-120444.php?uud=ABC3ApO> helbidetik eskuratua
- Ismett. (2019). *Centro Ri.MED: firmato il contratto per i lavori di costruzione*. <https://www.ismett.edu/it/comunicati-stampa/firmato-il-contratto-per-i-lavori-di-costruzione-del-centro-ri-med/> helbidetik eskuratua
- Istat. (2017ko urtarilak 4). *Prezzi al consumo (dati provvisori)*. <https://www.istat.it/it/archivio/195068> helbidetik eskuratua
- Istat. (2019). ANNUARIO STATISTICO ITALIANO 2019. Roma: Istituto nazionale di statistica.
- Istat. (2019ko abenduak 30). *ANNUARIO STATISTICO ITALIANO 2019, CAPITOLO 13. AGRICOLTURA*. <https://www.istat.it/it/archivio/236772> helbidetik eskuratua
- La Repubblica. (2020ko azaroak 12). *Fca-Engie Eps, maxi accordo per la mobilità elettrica*. [https://www.repubblica.it/motori/sezioni/attualita/2020/11/12/news/fca\\_mobility-274073935/](https://www.repubblica.it/motori/sezioni/attualita/2020/11/12/news/fca_mobility-274073935/) helbidetik eskuratua
- Lauria, E. (2019ko irailak 3). *Online la bozza in 26 punti del programma di governo M5s-Pd*. *La Repubblica*, or. [https://www.repubblica.it/politica/2019/09/03/news/online\\_la\\_bozza\\_in\\_26\\_punti\\_del\\_programma\\_di\\_governo\\_m5s-pd-235059672/](https://www.repubblica.it/politica/2019/09/03/news/online_la_bozza_in_26_punti_del_programma_di_governo_m5s-pd-235059672/).
- Ministero delle Infrastrutture e dei Trasporti. (2020ko maiatzak 21). *Tpl: 380 milioni di euro alle Regioni per acquisto nuovi bus*. <http://mit.gov.it/comunicazione/news/tpl-autobus/mit-380-milioni-di-euro-alle-regioni-per-acquisto-nuovi-bus> helbidetik eskuratua
- MME. (2020). *International Trade and Markets Access Data*. [https://www.wto.org/english/res\\_e/statis\\_e/statis\\_bis\\_e.htm](https://www.wto.org/english/res_e/statis_e/statis_bis_e.htm) helbidetik eskuratua
- Munduko Bankua. (2019ko iraila). *World Development Indicators: Employment by sector*. <http://wdi.worldbank.org/table/2.3> helbidetik eskuratua
- Munduko Bankua. (2020ko apirilak 9). *Data-Italy*. <https://data.worldbank.org/country/italy> helbidetik eskuratua



- Munduko Bankua. (2020). *Doing Business*.  
<http://documents.worldbank.org/curated/en/688761571934946384/pdf/Doing-Business-2020-Comparing-Business-Regulation-in-190-Economies.pdf> helbidetik eskuratua
- Munduko Bankua. (2020ko uztailak 1). *Gross domestic product 2019*.  
<https://databank.worldbank.org/data/download/GDP.pdf> helbidetik eskuratua
- Munduko Bankua. (2020ko apirilak 9). *Manufacturing, value added (current US\$)*.  
[https://data.worldbank.org/indicator/nv.ind.manf.cd?most\\_recent\\_value\\_desc=true](https://data.worldbank.org/indicator/nv.ind.manf.cd?most_recent_value_desc=true) helbidetik eskuratua
- Munduko Bankua. (2020ko apirilak 9). *Nazioarteko turismoa, bisitari kopurua*.  
[https://datos.bancomundial.org/indicador/ST.INT.ARVL?most\\_recent\\_value\\_desc=true&view=chart](https://datos.bancomundial.org/indicador/ST.INT.ARVL?most_recent_value_desc=true&view=chart) helbidetik eskuratua
- Munduko Foro Ekonomikoa. (2019). *The Global Competitiveness Report 2019*. Ginebra,  
<https://es.weforum.org/reports/global-competitiveness-report-2019>: World Economic Forum.
- Nazio Batuak. (2020). *UN Comtrade Database*. <https://comtrade.un.org/data> helbidetik eskuratua
- NDF. (2019ko otsailak 6). *Italy : 2018 Article IV Consultation-Press Release; Staff Report; and Statement by the Executive Director for Italy*. <https://www.imf.org/en/Publications/CR/Issues/2019/02/06/Italy-2018-Article-IV-Consultation-Press-Release-Staff-Report-and-Statement-by-the-Executive-46579> helbidetik eskuratua
- NDF. (2020ko ekaina). *World Economic Outlook Update, June 2020*.  
<https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/06/24/WEOWUpdateJune2020> helbidetik eskuratua
- NDF. (2020ko apirila). *World Economic Outlook, April 2020: The Great Lockdown*.  
<https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020> helbidetik eskuratua
- NDF. (2020ko urria). *World Economic Outlook, October 2020*.  
<https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/09/30/world-economic-outlook-october-2020> helbidetik eskuratua
- Orkestra. (2018). *Euskadiko Lehiakortasun Txostena 2018*. <https://www.orkestra.deusto.es/competitividad-euskadi/2018/downloads/informe-competitividad-euskadi-2018.pdf> helbidetik eskuratua
- Railway Technology. (2020ko urtarrilak 10). *EIB provides loan to Italy's Campania Region for 40 electric trains*.  
<https://www.railway-technology.com/news/eib-loan-electric-trains/> helbidetik eskuratua
- Regione Emilia-Romagna. (2020ko maiatzak 13). *Il colosso cinese Faw sceglie la Motor Valley: investimento da 1 miliardo di euro per lo sviluppo di auto elettriche*. <https://www.regione.emilia-romagna.it/notizie/2020/maggio/sviluppo-i-cinesi-faw-e-silk-ev-insieme-in-emilia-romagna-per-lo-sviluppo-di-auto-elettriche-con-oltre-1-miliardo-di-euro-colla-la-motor-valley-pronta-ad-accogliere-importanti-investimenti-legati-a> helbidetik eskuratua
- Romano, B. (2020ko maiatzak 6). Ue vede recessione record: Pil Italia -9,5%, peggio solo la Grecia. Eurozona -7,7%. «Senza azioni comuni gravi distorsioni al mercato unico». *Il Sole 24 Ore*, or.  
<https://www.ilsole24ore.com/art/i-danni-virus-secondo-ue-pil-italiano-giu-95percento-eurozona-77percento-ADSvuhO>.



- Sala, A. (2018ko martxoak 4). Elezioni 2018, i risultati: M5S primo partito, nel centrodestra la Lega supera FI. // *Corriere della Sera*, or. <https://www.corriere.it/elezioni-2018/notizie/elezioni-2018-exit-poll-risultati-proiezioni-spglio-eb21387e-1ff1-11e8-a09a-92b478235f6f.shtml>.
- Santander Trade. (2020ko maiatza). *ITALIA: AURKEZPEN OROKORRA*. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/italia/presentacion-general> helbidetik eskuratua
- Santander Trade. (2020ko ekaina). *Italia: politika eta ekonomia*. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/italia/politica-y-economia> helbidetik eskuratua
- Santander Trade. (2020ko martxoak). *Italia: atzerriko inbertsioa*. <https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/italia/inversion-extranjera> helbidetik eskuratua
- Savelli, F. (2020ko ekainak 12). Italia veloce, il piano De Micheli da 200 miliardi. *Corriere della Sera*, or. [https://www.corriere.it/economia/aziende/20\\_giugno\\_12/italia-veloce-piano-de-micheli-200-miliardi-709b10b8-acba-11ea-b5f6-e69744c83472.shtml](https://www.corriere.it/economia/aziende/20_giugno_12/italia-veloce-piano-de-micheli-200-miliardi-709b10b8-acba-11ea-b5f6-e69744c83472.shtml).
- Shrestha, P. (2020ko urtarrilak 4). EU bank backs EV charging network expansion with €25m loan. *Energy Live News*, or. <https://www.energylivenews.com/2020/01/04/eu-bank-backs-ev-charging-network-expansion-with-e25m-loan/>.
- Snam. (2020ko ekainak 4). *Agreement between Alstom and Snam for the development of hydrogen trains in Italy*. [https://www.snam.it/en/Media/Press-releases/Agreement\\_Alstom\\_and\\_Snam\\_hydrogen\\_trains\\_in\\_Italy.html](https://www.snam.it/en/Media/Press-releases/Agreement_Alstom_and_Snam_hydrogen_trains_in_Italy.html) helbidetik eskuratua
- SPRI. (2018ko otsailak 8). *Enpresen Nazioartekotze Plana 2017-2020*. <https://www.spri.eus/es/internacionalizacion-comunicacion/plan-internacionalizacion-empresarial-2017-2020/> helbidetik eskuratua
- The Global Economy. (2018). *Country Rankings*. [https://www.theglobaleconomy.com/rankings/GDP\\_constant\\_dollars/](https://www.theglobaleconomy.com/rankings/GDP_constant_dollars/) helbidetik eskuratua
- Torino Oggi. (2020ko ekainak 27). *Torino in orbita: Thales Alenia Space costruirà due moduli per la stazione spaziale "per turisti"*. <https://www.torinoggi.it/2020/06/27/leggi-notizia/argomenti/economia-4/articolo/torino-in-orbita-thales-alenia-space-costruira-due-moduli-per-la-stazione-spaziale-per-turisti.html> helbidetik eskuratua
- Trovati, G. (2020ko ekainak 20). Il Piano Colao costa 170 miliardi: 34% alle famiglie, 7% alle imprese. *Il Sole 24 Ore*, or. <https://www.ilssole24ore.com/art/il-piano-colao-costa-170-miliardi-34percento-famiglie-7percento-imprese-ADZPWFZ>.
- Unctad. (2019ko ekainak 12). *World Investment Report 2019*. [https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019\\_en.pdf](https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf) helbidetik eskuratua
- Unctad. (2020ko ekainak 16). *World Investment Report 2020*. <https://unctad.org/en/pages/PublicationWebflyer.aspx?publicationid=2769> helbidetik eskuratua
- UNDP. (2018). *Human Development Data (1990-2018)*. <http://www.hdr.undp.org/en/data> helbidetik eskuratua



- Vanguard Initiative. (2020).  
[https://www.s3vanguardinitiative.eu/sites/default/files/contact/image/final\\_declaration\\_of\\_milan\\_final\\_27\\_10.pdf](https://www.s3vanguardinitiative.eu/sites/default/files/contact/image/final_declaration_of_milan_final_27_10.pdf) helbidetik eskuratua
- WIF. (2019ko urriak 9). *Global Competitiveness Report 2019*. <https://es.weforum.org/reports/global-competitiveness-report-2019> helbidetik eskuratua

© Agencia Vasca de Internacionalización  
BasqueTrade and Investment S.A.



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
BASQUE GOVERNMENT